



ttiipi-ttapa

237. zenbakia • 1998ko irailak 10 • XVII. urtea



*Hainbat lagun bildu zen
San Agustín egunean,
sartzeko baimena eskatu
behar ez den egun
bakarrean*



Florentino GONÍ:
Oronoko alkatea

«Herriak hasieratik ezetz erran zion koartela hemen paratze-ari, eta etxebizitza horiek gazteentzat dira» dio Oronoko alkatea. Jakina denez, Nafarroako Gobernuak Oronozen sei etxebizitza eta txalet bat eman dizkio Barne Ministeritzari, Guardia Zibilaren koartel bat ezartzeko. «Urdazubiko koarteleko alferatiba planteatu dugu, han badirelako zenbait etxebizitza hutsak» Florentinoren erranetan.  3

28 Kirolak: Nafarroako aizkolari txapelketa

Igande honetan, eguerdiko 12,30etatik aitzinera jokatu da lehen mailako finala Donezteben: Larretxea, Mikel Mindegia, Senosiain, Barberena eta Jaunarena arituko dira lehian.

Erdiko gehigarria

Pilotaren Eguna Senperen

Buruilaren 20an Migel Gallastegi haundiaren omenez eta TTIPI-TTAPA laguntzeko asmoarekin Pilotaren Eguna antolatu du Oxtikeneko-ak elkarteak.




Artikutzako ateak zabalik

Goizuetako bihotzean egon arren 1919. urteaz geroztik Donostiako Udala da 3.700 Hektareako lur eremu honen jabe, hiriburua urez hornitzeko erosi baitzuen. Artikutzan autoan sartzeko

baimena eskatu behar da Donostiako udaletxean, eta eguneko hirutan hogeitau baimen bertzerik ez ditu banatzen. Ehiza edo arrantza egitea eta aziendak alatzea debekatu-ta dago. Honek arazoak sor-

tu ditu Goizueta eta Artikutzako abeltzainekin. Ingurua hobeki mantendu delakoan, Artikutza Mendiko Babeslea izendatzearen alde agertu da Donostiako Udala. Goizuetako Udalaren ustez, ordea, «honela Donostiaren esku soilik geldituko litzateke Artikutzaren etorkizuna».  4



Eguna:
Irailak 12, larunbata

Ordua:
Gaueko 10ak

Lekua:
Berako Kultur Etxea

Sarrerak:

- Momentuan erosita: **1.200 pta**

- Lehenagotik Errekalde ostatuan
salgai: **1.000 pta**



Antolatzailea:
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea



- **ENPRESENDAKO
ZERBITZU OSOA:**
Kontabilitatea,
fiskala eta laborala.
- **ETXE ETA
LURREN
SALEROSKETA
ZERBITZUA.**
- **ESKAERA
HAUNDIAGATIK,
BASERRI, BORDA,
ETA ETXEAK
EROSI NAHI
DITUGU.**

Santiago 51

Tel. eta Faxe: 948 58 05

0 6

DATUAK.....

❖ Nafarroako Gobernuak Oronozen sei bizitza eta txalet bat eman dizkio Barne Ministeritzari, Guardia Zibilarren koartel bat ezartzeko.

❖ Doneztebeko kuartela egoera txarrean dagoela eta, Oronozera aldatzea erabaki du Barne Ministeritzak.

❖ Bizilagunak kontra agertu dira hasieratik, eta horrelaxe jakinarazi zioten Baztango ordezkariak Nafarroako lehendakariordeari.

❖ Kamineroen etxeak moldatu eta herriko gazteentzat gordetzea da Batzarrearen asmoa, baina ikusi behar Baztandarren iritzia kontuan hartua izaten den.

✍ **Florentino GOÑI** *Oronozko alkate juradoa*

“Herriak ezetz erran dio kuartelari, eta etxe horiek gazteentzat dira”

ABUZTUAREN 18AN BAZTAN ETA ORONOZKO ORDEZKARIAK GURREA LEHENDAKARIORDEAREKIN BILDU ZINETEN GAI HONI BURUZ EZTABAIDATZEKO. ZE ONDORIO ATERA ZENU-TEN BILKURA HARETIK?


Guk Gurreari erran genion lehenagotik Baztanen badugula kuartel bat, Elizondon, eta 6 kilometrotara bertze bat paratzea soberaxko dela. Berak, ordea, Doneztebeko Guardia Zibilak egoera penagarrian dau dela erantzun zigun, eta gaur egun etxebizitza hauek hutsik izanik, logikoena dela Oronozera etortzea. Guk, orduan, Urdazubiko kuarteleko alternatiba planteatu genuen, han badiarelako zenbait etxebizitza hutsik.

AZKEN ERABAKIA BARNE MINISTERITZAK DU, HALERE.

Bai. Ansuategi oporretatik etorri berria da eta berekin bildu behar dugu orain, ia zer erraten digun.

BATZARREAREN ASMOA KAMINEROEN ETXEETAN BABES OFIZIALEKO BIZITZAK EGITEA DA, EZTA?

Hala da, guk segitzen dugu aitzinera Babes Ofizialeko Etxeen proiektuarekin. Duela denbora gutti, adibidez, Nafarroako Gobernuko langilea den zeladore



«Nik uste Barne Ministeritzak presione dexente duela alde guzietatik».

bat etorri da Oronozera, eta ez du bizitzeko lekurik aurkitzen. Nola egoten ahal da pertsona hori pisu baten bila, bizitza horiek hutsak dudelarik? Bertzalde, horren garesti daudenez etxebizitzak, hemen bada aunitz gazte bizitza lortu ezinean.

HERRIAK ZER PENTSATZEN DU GAI HONEN INGURUAN?

Herriak hasieratik

ezetz erran zion kuartela hemen paratzeari, eta gainera bizitza horiek gazteentzat dira. Guk bi puntu horiek garbi ditugu. Horretarako konponketak egin beharko lirake etxeetan, zaharrak direlako, baina subentzioekin-eta nahiko ongi geldituko lirake prezioz.

ALDERDI POLITIKOAK ERE ZUEN ALDE ATERA DIRA.

Parlamentuan, UPN kenduta, bertze talde guziaz gure proposamenaren alde agertu dira, bai. **GAINERA, GURREAK**

ERRAN ZUENEZ POLIZIA FORALARENTZAKO GORDE NAHI OMEN DITUZTE ETXE HORIEK...

Bai. Kontratu hau behin-behinekoa da, eta Guardia Zibilak bi urteko epean bakarrik egonen lirake Kamineroen etxeetan. Horregatik, denbora guttirako bada, soluzio ederra daukate Urdazubiko koartelean.

Nik uste Barne Ministeritzak presione dexente duela alde guzietatik eta UPNn bertan ere ez dakit denak ados diren. Nik uste nahasi xamar dabiltzala.

► **“Guk, orduan, Urdazubiko kuartelaren alternatiba planteatu genuen, han badiarelako zenbait etxebizitza hutsik”**

TESTUA:


ASIER GOGORTZA

ARGAZKIA:

KARMELE TOLOSA

Artikutzan bizi diren 15 lagunentzat zaila izan behar du nongoak diren erratea. Goizuetako udalerriaren barnean egon arren, 1919. urteko uztarrilaren 27az geroztik Donostiako Udala da 3.700 Hektareako azalera duen lur eremu honen jabea, bertako ur baliabideekin hiria hornitzeko erosi baitzuen. Donostiako Udaletxeak kenplegatzen ditu auzokoak, basoa eta urtegia zaintzeko. Auzorako ogia eta egunkariak erostera autoa jausten da Oiartzunera, aste-lehen, asteazken eta ortziraletan. Ikasketak egitera ere Oiartzunera joan ohi dira, baina gaur egun ez dago eskola adineko haurrik Artikutzan.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
AITOR AROZENA



- | | |
|-----------------------|------------------------|
| 1- Olajaundegi | 8- Txaletak |
| 2- Ostatua | 9- Udal aterpetxea |
| 3- Bekoetxe | 10- Biletegiak |
| 4- Olazar | 11- Indarretxe |
| 5- Almandoz | 12- Pilotalekua |
| 6- San Agustin ermita | 13- Enubietako urtegia |
| 7- Garbilekua | |

ARTIKUTZA: Donostiako auzoa Goizuetako bihotzean

Hamabortz bi zila gune hauen eguneroko gora-beherak baino historia luzeagoa gordetzen dute bere baitan Artikutza-ko lur, ur, zuhaitz eta basoek. Historiaurreko hilobietik, Erdi Aroko burdinolek... gizakia aspalditik bertan bizi izan dela erakusten dute. 1270etik Orreagako Santa Mariako Kolegiatak Aniz-

larrea zaharraren zati gisa administratu zuen. Anizlarrea, Goizueta eta Aranoko lurrek garai batean hartzen zuten izena da. Gogoratu behar da bi herri hauek bat izan zirela, 1630. urtean banatu ziren arte. 1468. urtean, Nafarroako Leonor erreginak, administrazioa ez ezik Anizlarrearen jabetza ere eman zion Orreagari. Ez da harritzekoa geroztik Goizueta eta Orreaga beti sesioan eta borrokan ibiltzea. Egoera ga-

tazkatsu honek 1815. urteko urriaren 18ra arte iraun zuen. Bakea lortzeko Anizlarreko muga berria jarri zuten eta Goizuetak eskuratu zuen erabat gaurko Anizlarre. Artikutza, berriz, Orreagarentzat gelditu zen, nahiz eta Elamako mugalarreetan aziendak -ahuntzak ezik- alatzeko zenbait eskubide mantendu goizuetarrek. 1816ko uztailaren 1ean 37 mugari jarri ziren Artikutza inguratuz, Iraingo (Loitzate inguruan) gainetik ha-

sita Oronozkozubietaraino (mapan). Mugari horiek, gehienak behintzat, duela 182 urte jarritako lekuan daude gaur egun.

1844 urtean, Espainiako Gobernuak, Desamortizazio Legearen bitartez, Orreagari kendu zion Artikutza eta XIX. mendean jabe ezberdinen eskuetatik igaro zen.

Donostiako Udala Artikutzaren jabe

Arestian aipatu bezala, 1919. urtean egin zen Do-

nostriako Udala Artikutzaren jabe. Helburu nagusia, Gipuzkoako hiriburua urez hornitzea izan zen eta horretarako Enubietako urtegia eraiki zen. Donostiako Udalak hasitako babes eta oihanberritze politikaren ondorioz, pagadi eta hariztiak nagusi dira inguruko mendietan. Zuhazti hauek fauna garrantzitsu eta anitza babesten dute.

Bertze aldetik, erakunde publiko baten esku egon arren, finka pribatua balitz bezala administratua dago Artikutza. Eskaseko baso-etxetik autoan sartzeko baimena eskatu behar da Donostiako Udaletxean –eguneko 60 bisitari, gehienez–. Ehizatzea edo aziendak alatzea debekatuta dago eremu guzian. Honek arazoak sortzen ditu, aziendek ez baitituzte mugak eza gutzen. Hainbat liskar eta arazo sortu dira Goizuetako abeltzain eta Donostiako Udalaren artean. Zenbaitetan isun gogorrak ordaindu behar izan dituzte goizuetarrek, aziendaren bat dela medio. Ageri denez, duela zenbait mende sesioak Goizueta eta Orreaga artean baziren, orain Donostia eta Goizuetaren arteko iskanbilak etengabeak dira. Bi Udalen arteko harremana arront hotza da azken urteetan.

Mendi Babeslea edo Barrendegi Naturala

Donostiako Udalak Mendi Babeslea izendatu zuen Artikutza duela bi urte. Nafarroako Gobernuari bertze horrenbertze egitea eskatu diote behin eta berriro, «*eremuhonen aberastasuna mantendu eta oihanen aprobetxamendua zehaztu ahal izateko*», baina Iruñetik ez dute erantzunik eman. Goizuetarrek ez dute begi onez ikusi donostiarren erabaki hau. Udalak adierazi duenez, «*hona Donostiaren esku soilik geldituko litzateke Artikutzaren etorkizuna*». Hori gerta ez dadin, Artikutza barrendegi edo enklabe naturala deklaratzeko eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari. Iruñak eskaera hau onartuko balu hiru administrazioek (Goizueta eta Donostiako udalek eta Nafarroako Gobernuak) zerbait esateko aukera aukera edukiko lukete barrendegiaren arauak egiterakoan. ■



San Agustin Eguna: Urtean behin Artikutzako ateak denentzat zabalik

Urtero bezala, abuztuaren 28an inolako baimenik gabe Artikutzan sartzeko aukera izanduz, San Agustin eguna ospatu baitzen bertako ermitan. Hau aprobetxatuz, Artikutza inguratzen duten hainbat herrietako lagunak bildu ziren auzoan: goizuetarrak, arantzarrak, lesakarrak, zubietarrak, baita Gipuzkoa aldetik joandakoak ere. Auniz oinez joan ziren, bizpahiru orduko bidea egin ondotik. Motoan, bizikletan edo zaldiz joandakoak ere ez ziren falta, baina Donostiako udaltzainei buruhausterik handienak Eskasetik sartutako ehundaka autoek sortu zizkieten.

Goizean meza aditu eta pilota partiduak ikusi eta arratsaldean, aizkol apostua. Goiz eta arratsalde zantzialdia Leitzako *Sorginbeltz* taldearekin. Egitarau zabal hau prestatzeko 800.000 pezetako aurrekontua erabili du Donostiako Udalak.



Goizean San Agustin ermita jendez gainezka ageri zen. Gero, auzoko ostatuan bildu zen jendea eta bazkaltzeko, urtegi inguruko zuhaitzek eskaintzen zuten itzala probextu zuten Artikutzara hurbildutakoek.

Donostiako Udalak ez du, azken hiru urteotan, besta honetan parte hartzeko gonbidapen ofizialik igorri Goizuetako Udalera.

Auzoan lan egiten duen Iñaki Uranga donostiarrek dioe-

nez, «*Donostiako Udaletxeak kontratatzen bagaitu ere, hemen bakoitza bere herrikoa sentitzen da: gehienak goizuetarrak, Arantza eta Lesakako bat edo beste eta ni, noski, donostiarra*».

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.050 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria: Aitor Arozena. **Pu-**

blizitatea: Kulturkari, S.L. **Erre-**

dakzioa: Aitor Arozena, Asier

Gogortza, Joxemanuel Irigoien.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

zetxea, Juainas Paul, Bittori Te-

lletxea. **Berriemaileak:** Joseba

Azpiroz, Esteban Arozena, Jua-

na Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi

Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaio-

ne Otxandorena, Alba Fernan-

dez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor, Mar-

gari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

xel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

xabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

rra, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

vier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain har-

itzen derrigorrez, aldizkarian adie-

razitako erranen eta eritzien eran-

tzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta

Sarako udalak, Bortzirietako Eus-

kara Mankomunitatea, Malerre-

kako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Bidasoako Jaialdien balorazioa

Oso eskeintza ederra iduritu zait; ia norbaitek segitzen duen lan honekin



Mikel GEREKA
Zubietza

Oso eskeintza ederra iduritu zait Bidasoako Jaialdi hauena. Batetik,

Zabor-Arterakusketa ikusi nuen Donezteben, eta interesgarria iduritu zitzaidan. Bertzetik, Lesakako afro-gauean ere egondu nintzen, eta biharamuneko saltsa-gauean ere bai. Pertsonalki, oso gustora egon nintzen. Kolonbiako saltsa taldea oso ikusgarria izan zen. Ondotik jo zuen talde kubatarra, ordea, hortera xamarra zen nere gustorako, baina dantza egiteko egokia. Hala ere, futbol zelaian jende gutti ze-goela iduritu zitzaidan. Izan ere, halako eszenatokiarekin bazirudien milaka pertsona etorriko zela, baina jende eskasa bildu zen. Horrek pixka bat pobretu zuen ikuskizuna.

Nere inguruko lagun batzuk, berriz, Carlos Nuñez ikusten izan ziren Elizondon, eta haiek ere oso gustora etorri ziren.

Hasieran, egitaraua ikusi nuen, zabalegia iduritu zitzaidan. Hemen kultur ekitaldietara mugitzen garen jendea, beti berdintsuak garelako normalean. Orain ikusi beharko da antolatzailerik nola baloratzen dituzten emaitzak. Ia norbaitek segitzen duen lan honekin. Gu behintzat joanen gara ekitaldietara.

Ekitaldirik ez dagoelarik beti kexatzen, eta dagoenean ez dugu parte hartzen



Mari Jose GARMENDIA
Elizondo

Luar Na Lubre, Carlos Nuñez eta Petersellersen kontzertuetan

egon nintzen. Azken honetan 20-25 lagun bertzerik ez ginen bildu, agian larunbata zelako eta Zigako bestak. Hala ere arras giro ona izan genuen. Ekitaldirik ez dagoelarik beti kexatzen ari gara, eta badagoenean ez dugu parte hartzen. Nik uste kanpoko gauzak gehiago baloratzen ditugula. Segur nago horrelako kontzertuak ikustera Iruñearaino joaten dela hemengo jendea. Gure zonaldean egiten direnean pentsatzen dugu ez direla onak izanen, edo nik ez dakit...

Luar Na Lubreraren kontzertuan, ordea, Zugarramurdiko lezeak jendez gainezka zeuden. Nuñez kontzertua, halaber, arras ona izandu zen, eta jende poliki bildu zen. Gainera sorpresa tiki bat izan genuen, Baztango txistulariek pieza batzuk jo baitzituzten berekin.

Neri arras positiboak iduritu zaizkit jaialdi hauek. Elizondo aldean turismo aunitz dabilabuztuan, eta horrelako gauzak eskeintzea arras ongi dago. Alde txarra, berriz, hemengo jendea ez dela mugitzen. Ni izan naitzen ekitaldietan turista gehiago zegoen bertako jendea baino.

Uste genuen kotzertu batean 1.000 lagun biltzea aisa zela, baina ez da




Nora ENERRETEAGA
Bertizko Partzuergoa

Hasiera batean bildu ditugun datuen arabera, 3.000 pertsona ibili dira

denetara Bidasoako Jaialdietako ekitaldietan. Baina neretzako garrantzitsuenak da ekitaldiren bat ikusten egondu den jende guzia hagitz gustora atera dela. Ikuslego aldetik, Luar Na Lubre, Carlos Nuñez eta Lesakako afro-gaua izan dira arrakastatsuenak, bakoitzan ia 600 ikusle izandu zelako. Oker-okerrera, berriz, "El Mecánico del Swing", Beran. 15 pertsona-edo egonen ziren. Diru aldetik, berriz, Lesakako kontzertua bezalako bat antolatzeari hagitz garesti atera zaigu, azpiegiturarik ez dugulako. Azkenean, gehiago gastatzen da aulki, eszenario... eta horrelakoe-tan, musika taldeetan baino. Bestalde, guk hasieran pentsatzen genuen kontzertu batean 1.000 lagun biltzea aisa zela, baina ikusi dugu ez dela batere errea. Nahiz eta gure intentzioa ez den inoiz izan honekin dirua irabaztea -alderantziz, badakigu dirua galdu behar dugula- saiatzen gara ahalik eta guttien galtzen.

Oraindik kontuak ateratzea falta da, baina printzipioz heldu den urtean errepikatzeko intentzioa aski argi dugu.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneretik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittoria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA



Motxila galdu dut, liburu eta guzti

Xanti IANTZI (Baztan Ikastola)

Neurria: Zortziko Titikia

*Galdu egin zait neri
goizean motxila
ez dakit nondik hasi
orain bere bila
aurkitzeko beharko
laister espabila
barnean baitut gaurko
etxeko-lan pila*

*Amatxok emango dit
haserre haundia
ta gainera akabo
gaurko afaria
bilatzeko bakarrik
dut ordu erdia
mugitu beharko dut
laister ipurdia*

Berako "Toki Ona" B.H.I.ko Zuzendaritza Taldeari erantzuna

Harriturik gelditu naiz "Toki Ona" Ikastetxeko Zuzendaritzak, TTPI-TTAPA aldizkariko 233. zenbakian, nik egin ez ditudan atxikimendu eta iritziak leporatzen dizkidala ikusi ondoren. Hori dela-eta, zera adierazi nahi dut:

- 1.- Nire atxikimendua eman nion testuak hitzez-hitzez hau zioen: "Hemen beheitan sinatzen dugunok Berako Labiaga Ikastolaren egoera administratiboa kezkaz ikusten dugu eta horrelaxe salatu. Izan ere, D.B.H. etapan euren formakuntza egiten ari diren 100 haurren egoera harrigarria baita: lau urte eta gero, ETAPA OSOA ORAINDIK ILEGALIZATUA (hau da, babes administratibo eta ekonomikorik gabe). Hau dela eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailari egoera hau ahalik eta agudoen konpon dezala eskatzen diogu (areago, 4. mailako taldeak ikasketak EKAIANEAN BERTAN amaituko duela kontuan hartuta)."
- 2.- Egin dudana adierazpen bakarra alpatu testu horri nire atxikimendua izan dela, non Nafarroako Gobernuari, Berako Labiaga Ikastolan Bigarren Hezkuntza euskaraz egiten ari diren 100 ikasle-erentzat, legalitate administratiboa eskatzen baitzitzaien.
- 3.- Gain honi buruz ez dudala, ez idatziz ez eta hitzez ere, bertze adierazpenik egin, eta ez dudala deus ikustekorik zuek diozuenez, Egin-en ekainaren 6an, agertu zen alpamenarekin.
- 4.- Beraz, atxikimendua eman nion

IRAKURLEAK MINTZO

testutik kanpo leporatu nahi izan dizkidazuen iradokizun eta iritzi-ekin, ez dut deus ikustekorik.

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE,
EUSKALTZAINBURUA



Berako Udalarikexa:

TTPI-TTAPA aldizkariaren bitartez, nere kexa adierazi nahi nioke Berako Udalarik. Badakit ez duela ezertarako balioko, baina esaera batek dioen bezala, 'zerbait nahi duenak berea kostatzen zaio', ezta? ba neri ere bai.

Eta naiz kanpotik herri honetara etorria izan, orain dela pare bat urte nik ikusten dudana da bereizkuntza haundia dagoela, ez

jendearengan, baizik herriko beste buruz ari naiz. Auzo bakoitzak baditu bere bestak eta herriko zaindariaren izena daraman auzo polit hau, ezer gabe utzi duzue. Hemen ez daukagu ezer, ez eta egun batean ere, ez erraldi, ez dantzari, ez txaranga, hona ez da ezer azaltzen. Eta lehen erran dudana bezala nahiz kanpotik etorria izan, gustatzen zait herrian zer dagoen ikustea edo bizitzea, herriar batek gehiago bezala. Horregatik erran nahi dizuet: Zabaldu bestak auzo guztietara, eta ez batzuetara bakarrik. Mila esker.

B.E.H.



HAUEK ERE BAI...

BAI EUSKARARI!

esari zeuk ere
izena eman
euskaltegi eta berritzaileari

BAZTANGO AEK

EUSKARA IKASTAROAK 98-99

Informazioa eta Matrikula:

ELIZONDOKO IKASTOLAN

Tfnoa: 948 45 24 71

Epea: Irailaren 25a arte

ttipi-ttapa

Ameriketara bidaltzea

erdi prezioan

gure bitartez

Franko Kontzertatuari esker, aldizkaria guk bidali azkero, zuk bidaltza baino erdi prezioa kostako zaizu.

Iparraldetik deitzeko 19-34
Hegoaldetik deitzeko **948 631188**

 **Tiburtzio ARRAZTOA** *Laxoa txapelketako antolatzaile*

Laxoa bizirik eta osasuntsu mantentzen da



Joan den abuztuaren 2an bukatu zen XIX. Baztan-Errekako Laxo txapelketa, Iruritako plaza jokatuak finalarekin.

Bertan, Doneztebe izan zen berriz ere Arraiozen kontra garaile suertatu zen taldea, modu honetan bere hamabigarren txapela lortuz. Beraz, momentu egokia da hau balorazio orokor bat egiteko, Laxoa Elkartearen ustez, du-dik gabe, positiboa.

Lehenik eta behin, Laxoa oraindik bizirik mantentzen delako eta txapelketaren balorazioa egiteko aukera badagoelako. Baina kontu hau alde batera utzirik, aurtengo txapelketak proposaturiko helburu guztiak bete ditu. Bost hilabetetan zehar hirutan hogeita bi partidua jokatu dituzte eta erakutsi duten joko maila ere altua izan da, batez ere txapelketak aurrera egiten zuen neurrian. Eta azkenik, finala, oso ona: partidua ona, ikustera hurbildu zen jende multzoa eta iruritarrek, beraien pilota plazaren mendeurrena gogoratu, egindako lanaren ondorioz, plazaren itxura berria. Baina txapelketa bukatu den arren, egondu eta egonen dira bertze zenbait ekintza ere: herriko bestetako partidua, Cultur 98, Iruritako plaza mendemuga... Eta berrikuntza bezala, lehendabiziko aldiz neguan antolatuko den Paxaka Txapelketa frontoian.

Laxoa gutxiengoaren modalitatea da. Baztan eta Malerreka bailaratan bakarrik mantentzen da. Finala kenduz gero, nahiko gutxi dira plaza agertzen direnak eta pilotazale, Federazio eta erakunde gehienentzat oraindik ezaguna da modalitatea hau. Pilotaren barrenean bertze mundu bat da Laxoa, pilotaren bertze ikuspuntu desberdina, eta bai zaletuek baita kirolariek ere horrela bizi dute, kirolak duen aberastasunaz aparte, historikoki eta kulturalki balore izu-

Laxoa gutxiengoaren modalitatea da. Baztan eta Malerrekan bakarrik mantentzen da. Pilotaren barrenean bertze mundu bat da Laxoa, Pilotaren bertze ikuspuntu desberdina. Bai zaletuek, baita kirolariek ere horrela bizi dute, kirolak duen aberastasunaz aparte, historikoki eta kulturalki balore izugarria ematen diotelako.

garria ematen diotelako. Oraindik bizirik mantentzen da eta Laxoa Elkartea lanean darrai. Larunbat honetan, irailaren 12an, bilera orokorra egingen da Donezteben, bertzeak bertze aurtengo Txapelketaren balorazioa egiteko eta neguko Paxaka Txapelketa antolatzeko. Beraz, zaletuen eta hurbildu nahi duten pertsona guztien proposamen eta iritziak espero ditugu.

 **Bixente USABIAGA "Makana"** *Leitzatik*

Leitzako mendiarentzat plan teknikoa



*"Leitzarrek beraiek ez dakitez nola lako aberastasu-
n (Leitzan) aberastasu-*

na berez jaio egiten da, eta ahantzia daukate. Hemen (Bidasoaldean), berriz, landatu, mimatu eta halere balekitez zenbat kostatzen den basoa aintzineraz atera-tzea!"

Bizi guztian basozain, guardamonte izandutako, eta gaur jubilatuta dagoen Bidasoaldeko batek esana da.

Urte askotan menditik egin izan dira herriaren aurrekontuak. Begira: bi mendi saldu eta erosi ziren lurrrak eta argindarra sartu, Sarrio Papelera herriara etortzeko ere. Kontu horiek egi-egiak dira.

Datuak datu, eta joanak joan, gauza da urteetan pixko bat ahanztua egon dela mendia Leitzan. Hortaz oharturik, Plan tekniko tiki bat burutu du Leitzako Udalak, Mendi batzordearen eskutik. Zoritzarrez, hiruetatik bi bakarrik aritu gara lanean, Gabriel eta biok. Hirugarrena, Gerardo komisio burua, ez da azaltzen eta aspalditxo. Hiruron artean hobeto egingen genuela seguru, baina ezin ginen geldi-geldirik egon bera etorri zain.

Egin dugun Plan tekniko horren muina hau da, bi hitzetan: larrea eta oihana bereiztea batez ere. Eta oihana bezala utzitakoa, zein esplota-

tzeko bideratu zein aisialdirako, zein bertan utzi lurzorari eusteko...

Nafar Gobernuan aurkeztu dugu eginiko lana eta badi-rudi asko gustatu zaiola. Aditu dugu Gobernuak berak beregain hartuko ote duen plan horren garapena... aditu dugu, udazkenean jakin-nen dugu.

Hirigintza-Urbanismo plana bezala, mendiko plan berri bat egin dugu, zer nolako mendi, larre eta oihanak nahiko genituzke hemendik 15 edo 20 urtera.

Mendia behi bat bezala da:

behiak esnea ematea

nahi baduzu, muturretik

ongi eman jatera,

bazkatu eta gainera

losintxa batzuk

ere egin tarteka.

Mendia ere zaindu egin

behar da: pixko bat

pentsatu zer nahi dugun,

nahia horren ariora

pixko bat planifikatu

(larrea eta oihana bereizi)

eta plan horren haritik:

bota, bakandu, landatu, itxi...

Arreta, denbora eta

pazientzia behar du mendiak.

Eta, seguru gaude, han hemenda baserritar eta artzain frankorekin kontsultak egin arren, seguru gaude hobetu daitekela plan tekniko hau eta puntu asko eztabaidagarriak direla. Mendiko plan honekin interesa piztu nahi dugu, arreta, hitzegin.

Leitzako mendien geroa erai-ki.

Denon artean denona dena.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 98ko abuztuaren 27a

«Kanpoan margotzea gustatzen zait eta neretzat, hau leku ideala da paisaiaren egiazko kolorea hartu ahal izateko. Errekak eta zehazki Bidasoa, nere inspirazio iturri nagusiak dira».

Miguel Angel BELTZU
Donamariako errotoak
margolaria
Diario de Noticias 98-VIII-27

«Mallorcan ez ninduten ezagutzen, baina hilabete batez bigarren taldean hagitz gustora egon naiz. Baina Real Uniongo zuzendariak ez didate kontratua irakurtzen ere utzi».

Martin IRAZOKI
Lesakako futbolaria
Diario de Noticias 98-IX-1

◆ **Unibertsitatean edo Zalaingo Aceralian gusturago?**

❖ Zalainen aunitzekin gusturago. Dudarik gabe.

◆ **Zein lanetan aritzen haiz?**

❖ Bekadun moduan.

◆ **Zer iruditu zitzaien Olanok Tour-a utzi izana?**

❖ Ezin baldin bazuen, errestaka ibiltzeko, egin zezakeen hoberena.

◆ **Iruñeko gaueko besta edo inguruko herrietako gauetakoa?**

❖ Inguruko herrietako gauetakoa.

◆ **Herriko bestetan, lana edo besta?**

❖ Bestak bukatuta, hurrengo eguna ere besta hartzen dut.

◆ **Kalimotxo edo zerbeza?**

❖ Kalimotxo, baina eskuz egindakoa, Kañakoa txar mortala da.

◆ **Nongo bestetara ez hintzen faltatuko?**

❖ Legasako bestetara.

◆ **Momentu honetan musika talderik gustokoena?**

❖ Latzen.

◆ **Oporetan nora joanen hintzateke?**

❖ Seichelles irlatera.

◆ **Eguzkia sutan edo euria goitik peka?**

❖ Euria. Eguzkia ez zait sobera gustatzen.

◆ **Irakurri duken azken liburua?**

❖ Unibertsitateko edozein testu-liburu.



Martin SUBIZAR

NUPEko ikasle eta Aceraliako langilea. LEGASA.

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 948 630259 - BERA



ZALAIN
JATE TXEKA

Zalain Auzoa
© 948 631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzula!

© 948 63 11 88



© 948 630 598
Altzate, 6
BERA

MERKEALDIAK azkeneko

Txandalak	2.000 pta
Kamisetak	1.000 pta
Sudaderak	3.000 pta

*Eskolako material berrian
Aukera zabala*

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA


Mediku espezialista norberak aukeratu ahal izanen du

Nafarroako Gobernuak onetsitako Foru Dekretuaren arabera

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak mediku espezialistaren hautaketa librea arautu du Osasunbidean, Foru Dekretu baten bidez. Eraberean, dekretu honek osasun laguntza espezializatuan eskaini behar diren laguntzaren eta jarraipen personalizatuaren eskakizunak arautzen ditu.

Dekretuak dioenez, hautaketa paziente bakoitzari dagokion oinarritzko osasun laguntzako medikuak eginen du, eta horretarako kontuan izanen ditu pazientearen nahi zehatza, haren prozesu klinikoaren ezaugarriak eta eskatutako espezialistaren itxaronaldiak. Prozesu kliniko beraren barrenean, oinarritzko osasun laguntzako medikuak beste kontsulta eskatzen ahal izanen du, bai pazienteak eskatzen duelako, bai bigarren iritzi espezializatu beharrezkotzat jotzen duelako. Osasun Eskualde bereko oinarritzko laguntzako mediku guztiek espezialista berbe-



Espezialistaren hautaketak paziente bakoitzari dagokion oinarritzko osasun laguntzako medikuak eginen du

rengana jotzea izanen dute. Espezialisten zerrenda aldian-aldian berritu eta jendaurrean paratuko da.

LANEN EMAITZA ETA TERAPIA JARRAIBIDEA

Kasu guztietan, mediku espezialistak haren lanaren emaitzen eta terapia-jarraibidearen berri emanen dio oinarritzko laguntzako medikuari, behar den jarraipen medikoa ziurtatzeko helburuarekin.

Espezialisten hautaketa pazienteari dagokion oinarritzko osasun eskualdeko erreferentzi-zentroko profesionalen artean egin behar da. Horrela bada, Doneztebe, Leitza, Lesaka eta Elizondoko oinarritzko osasun eskualdetako pazienteei dagozkie Bideko Amabirjina Ospitaleko espezialistak (Liseri-Aparatua, Kirurgia Orokorra eta Liseri-Kirurgia, Barne Medikuntza, Neumolo-

gia, Neurologia eta Urologia).

Kardiologia, Dermatologia, Endokrinologia, Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Traumatologia eta Kirurgia Ortopediko espezialitatean, oinarritzko laguntzako medikuek libreki hautatzen ahal dute espezialista Nafarroako nahiz Bideko Amabirjina Ospitaletan, edo bertze zentru espezializatu-takoen artean ere.

Botikazoak ez du eraginik izanen Nafarroan

Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu bat onetsi du, Gizarte Segurantzak irailaren 1az geroztik finantzakutako ez dituen prestazio osagarria, berezko fondoen kontura, ezartzen duena. Honek zera erran nahi du, Espainia osoan ezarri den *botikazoak* ez duela indarrik izanen Nafarroan eta orain arte bezala zenbait botika dohainik eskuratu ahal izanen direla.

Nafarroako Gobernuak aurrikusi duenez, irailetik abendura bitartean 100 milioi pezetako gastua ekarriko du honek. Botika prestazioa hartzeko eskubidea duten eri ospitaleratugabe guztiak dira neurri honen onuradun, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko txartelaren (NOT delakoa) jabe baldin badira. Aginduriko botika ordaintzeko aseguratuan diru-ekarpena Osasun Sistema Nazionaleko botika prestazioetako bera izanen da (langileek % 40 eta dohainik gainerako eriek). Errezeta eredu ofizial bat erabiliko da, Osasun Sistemako gainerako errezeta ereduak bezelakoa izanen ez dena

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

Hamabostero
ofertak

Zatoz eta

Eztegara, 6
© 948631403 • BERA

zapatak
osagarriak
konponketa

kalotxa zapatadenda
Lanbideburu 8 Buz 31780 Nafarroa 018.031E18

hasi ordu
irafak **7**

GRUPO
ZURICH

ASEGURO
OROKORRAK

Itzea, 4 • BERA
© 948 630 763

Tanttaka antzerki taldeak 'Dakota' komedia eskainiko du larunbatean

Berako Kultur Etxean izanen da saioa, arratseko 10etan

ASIER GOGORTZA

Duela gutti Donostia-ko Antzoki Zaharrean arrakasta ezagutu duen euskarazko antzerki lana izanen dugu larunbat honetan (irailak 12) Berako Kultur Etxean. Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak antolatatu du saioa, eta dagoeneko sarrerak eros daitezke Errekalden, 1.000 pezetaren truke. Momentuan erosita, berriz, 1.200 gostako da sar-tzea.

Jose Ramón Soroiz, Aitzpea Goenaga, Ramón Agirre eta Joseba Apaolaza dira komedia honetako lau protagon-istak. Euskal Telebista-ko hainbat telekomedia-tan parte hartu izan dute-lakoz dira batez ere eza-gunak Tanttaka taldeko

kideak, baina antzerki mundutik heldu dira de-nak ere, eta oraindik ere bi arloetan segitzen du-te lanean. Dakota obra

honi buruz, berriz, erran behar da Jordi Galceran egileak katalanez idatzi zuela bertsio orijinala, eta Josep Maria Mestre-

sen zuzentzen duela eus-karazko bertsioa. Egile-ek "egungo komedia" bat bezala definitzen du-te antzerki lana.



Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketan laugarren

Irastortza anai-arrebek 4. postua eskura-tu zuten abuztuaren 15ean Zeanurin jo-katu zen trikitilari txapelketan. Sei biko-te finalisten artean Amaia eta Joseba al-kaigarrik izan ziren Nafarroako ordezkari bakarrak, bertze 5 bikoteak gipuzko-arrak baitziren. Zorionak!

flash

Udal zergak ordaintzeko epea

Irailaren 19ra arte za-balduta dago 1998ko lehen hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko boron-datezko epea.

Illekuetako bestak

Irailaren 12 eta 13ko asteburuan ospatuko dira Santakruz bes-tak. Larunbatean Matzadako Tiro Txapelketaren 31. edizioa jokatu da.

Berako bestak

eta Gazte Jokoetako bideoak salgai jarri ditu Ttipi-ttapa TBk. Etxegarai Bideoklu-bean eta Goiko eta Ayla argazkidende-tan aurkituko dituzu.

Patxi Vila

Caja Rural taldeko txirrindulariak bere lehen etapa garaipe-na lortu du afizionatuetan. Esprintean gailendu zen Palen-tziako itzuliko laugar-ren etapen.



Entrenatzailea urera!

Arg.: Asier

Gure Txokoaren VIII. Igeriketa Txapelketa jokatu zen abuztuaren 26an

Lesaka, Leitza eta Berako igerilari gaz-teak juntatu ziren Berako igerilekuan, urtero bezala, Gure Txokoak antolatzen duen igeri lehiaketan parte hartzeko. Igeri-larien senide eta lagu-nek giro polita sortu zuten oihi eta txalo-en bidez, eta horre-

la, konpetizioak ema-ten dituen urduritasu-nak lasaitu ziren pix-ko bat. Hondarrera-ko, entrenatzaileak urera bota zituzten denen artean, eta aur-kezlearekin ere ez zu-ten errukirik izan. Sari banaketa eta de-rrigorrezko argazkia-ren ondotik, berriz,

luntxean kontzentra-tu ziren gaztetxoak.

Bertzalde, abuz-tuaren 30ean Gelben-zun egin ziren Kirol Jokoetan Baztan Bidasoako infantil taldeak garaipena es-kuratu zuen errelebo mixtoetan, eta ba-karka ere domina franko lortu zituzten.

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.

© 948630941 • 948631137 • BERA

KRISTALDEGI ZERBITZUA ETXERA
(zonalde osoan)

© 929 443 765 • BERA

Xirgil
leapaindegia

© 948631462 • Altzate 1 • BERA

LESKA

Errotonda eginen dute Tomaseneko Bordako bidegurutzean

Herrian dagoen trafikiko arazo larrienetako bat, Tomaseneko Bordako bidegurutzearena alegia, laster moldatuko da. Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak bidegurutze hori moldatzeko proiektua onartu berri du. Proiektuaren arabera errotonda edo biribilgune bat eginen da NA-4000 (Bereautik Agiñara) eta NA-4001 (Tomaseneko Bordatik Aceralia lantegira) errepideak elkartzen diren lekuan. Biribilgunearen barneko erradioa 12 metro terdikoa izanen da eta launa metroko bi karriil eta metro bateko bide bazterra izanen du. Ohikoa denez, biribilgunearen barnean da biltzan autoek lehentasuna izanen dute. Lanaren aurrekontua 43.845.975 pezetakoa da; 5 milioi aurtengo aurrekontuaren bizkar joanen da eta gainerakoa, 1999ko gastu aurrekontuaren bizkar.

Bidegurutze honetan hainbat istripu gertatu dira, aski larriak batzutan. Izan ere, fabrika aldetik ateratzen diren ibilgailuen kargaturiko kamioiak, batez ere gidarientzat zaila suertatzen da Lesakatik atera nahiz Bereauko zubitik datozen ibilgailuak ikustea.



Igeriketa txapelketan parte hartu zuten neska-mutikoak

Argazkia: Aitor

32 neska-mutiko aritu dira igeriketa txapelketan

Abuztuaren 23an burutu zen udal igerilekuan

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak hirugarren aldiz antolatutako Lesakako igeriketa txapelketa burutu zen abuztuaren 23an udal igerilekuan. Baztan, Leitzaldea eta

Bortzirietatik etorrirako 32 igerilari lehiatu ziren estilo eta maila ezberdinetan.

Kadete eta jubenil mailan izan ziren lehiakide guttien, bina mutil bakoitzean. Alebin mailan borts mutiko eta

zazpi neskek eman zuten izena eta infantil mailan, bederatzi mutiko eta zazpi neska aritu ziren. Proben ondotik, water-polo partida jokatu zuten denek elkarrekin eta hameketakoa izan zuten.



Munduko musikak

Bertziko Partzuergoaren eskutik, Brasil, Kolonbia, Kuba, Afrika eta Euskal Herriko musika eta dantzak aditu, ikusi eta dantzatzeko aukera izan dugu aste-buru berean. Argazkian, Kolonbiako Palo Q'Sea taldea.

Argazkia: Legarra

flash

Frain auzoko bideen 2. fasea

Hirurteko Azpiegitura Planean sartu du Nafarroako Gobernuak. Lanaren aurrekontua 81,18 milioi pezetakoa den bitartean, Iruñetik 53,28 milioiko inbertsioa eginen da.

Enpresa mindegia Alkaiagan

Alkaiagako industrialdean egingo den enpresa mindegia eraikitzeke lanak lehiaketa bidez emanen ditu Udalak. Lanaren aurrekontua 22.370.913 pezetakoa da (BEZ barne) eta proposamenak irailaren 28ko eguerdiko ordubata baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan.

Antzerki ikastaroa Lesakan

izanen da urritik aitzinera, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak antolatuta. Irakaslea Joxelu Berasategi izanen da. Hasiera batean, ikastaroa larunbat goizetan emanen da, bi ordu terdiko iraupenarekin, baina eguna eta ordutegia izen eman dutenen artean erabakiko dira bileraren batean. Izen ematea irailaren 20a bitartean zabalik dago Euskara Zerbitzuko 948 634 005 telefonon.

ANA
janaridenda

Bittiria, 41 • ☎ 948637944
LESKA

Lurrindenda
Marian
Estetika
Behoko Plaza 8 • ☎ 948637791 • LESKA

LA BICI NAVARRA
LEGARRA liburudendan salgai
1998. urtean argitaratutako ale guziki

Legarrea 9, LESKA • ☎ 948 637 030

**BITTIRIA
HARATEGIA**

☎ 948 627555
Bittiria, 43 • LESKA

ETXALAR

Usategietako ehizarako postuen subasta irailaren 12an egingen da

Bertze aldetik, tortoilaren ehizarako postuen zozketa abuztuan hasi zen

PELLO APEZETXEA

Uso ehizarako denboraldia hurbiltzen ari denez, ehizarako presaketak ere gauzatzen ari dira. Horien artean bat, inportanteenetakoa, ehiza postuen enkantea edo subasta izaten da. Aurten, buruilaren 12an, larunbatean, egingen da, eguerdiko 12etan, Herrikoetxean. Hasierarako, aldaera haundirik ez da aipatzeko, prezioak %5 garestiago direla ez bada, iazko prezioekin konparatzen baditugu.

Erretiratuak Arantzazun

Erretiratuak, gauza batzuetatik erretiratu badira ere, bertze batzuetan lehen baino erretiro tikiagoa dute orain, noski. Etxetik kanpora lehen baino maizago jozten baitute, aunitzek benpin. Eta ongi egina, etxetik ateratzeak me-



Oraindik berriki ikusitako iduriak ditugu, asau egunekoak: txaranga eta txarangazaleak ez dira zementoztaturiko karriketan bakarrik ibiltzen, urezkoak ere maite dituzte zenbaitetan.

Xabier Bizente

sede egiten baitigu denoi. Horrela bada, abuztuaren hondarreko egunean Arantzazura egin zuten bisitaldia, Arkupeak Elkarteak urtero antolatzen duena.

Larraburuko moldatze lanak

Gobernuaren laguntzarik etortzen ez zela-

ko, zenbait urtez gibelatuta egon diren moldatze lanak, aurten burutuko dira. Momentuz bi logela bertzerik ez den bezala, moldatze lanak egin ondotik 4-5 izanen dira. Gainera, egongela haundituko da, eta, jendearen arabera, bi egongela izateko aukera ere badago. Baina ez

da hori dena. Sarrerako eskalak pasatzeko, igangailua ere paratuko dute, hau da, malda guziaz jarrita egingen dute Zahar Etxeko bizilagunek. Lan horiek guziaz ordaintzeko zortzi milioi eta erdi gastatuko dira, eta ekarri behar diren moleak erosteko bertze bi milioi eta erdi.

flash

Dantzari, txistulari eta trikitilariak

afaria egin zuten Andre Mari egunean, eta dantzari tikiak bidaia Donostiara abuztuaren 29an. Altxatak antolatu zituen bi gauzak, eta zati bat ordaindu ere bai, nahiz horretan Udalak ere paratu zuen bere laguntza.

Behekolandako urbanizatze lanak aurtan

Karrika breaztatu, kanpoko argiak paratu, ur zikin eta garbien bideak lurpean egokitu, argi eta telefono hariak ere bertan sartu. Hori egingen da, baina jasotako etxeei dagokien, bakarrik, ez eremu osokoa. 9 milioi-ko kostua du lanak, eta negurako akautua egon behar du.

Ikasturte berria

Irakasle gehienak berriak dira. Aspal-diko partez, Enkarnita ere ez da hemen izanen, denbora baterako etxean gelditu delako.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

Manuel Zamorano Aguilar
Bittiria, 37 • LESAKA
© 989 04 26 71

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 635290 ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

LEGARREA
Legarrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

HARITZPE
948635235
948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

XATURBETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ERRISTEIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

IGANTZI

Igande honetan izanen da Mendi Bizikleta Ibilaldia

Ramon Retegi alkate eta Felisa Goienetxe zinegotzi berriak

OSKAR TXOPERENA

Inguruko zenbait herrian mendi-bizikleta probak desagertzen ari diren garai honetan, igantzikoak ez du aurtengoan ere hutsik egin, hortxe egonen baita, irailaren bigarren igandean, bere urteroko erronkari eutsi nahian. Orain bi urte arte mendi-bizikleta taldeak antolatzen bazuen ere, orain Biltoki Elkarte arduratzen da antolaketaz. Beren erranetan, konpetizioa eta afizioa uztartu nahi ditu probak, hau da, lehia bizian edo paseatzen ibili nahi dutenentzat topaleku izan nahi duela. Hasiera goizeko 10,30etan ematen zaio probari, baina, izenematea 8,30etatik aintzinerira irekia egonen da. Joan den urtean parte hartu zutenek lortutako denborak ere hor-



Joan den urteko Mendi-bizikleta proban txirrindulari igantziarrak izan ziren protagonistak, hiru sartu baitziren lau lehenbizikoetan, herriko proba ongi prestatzen dutenaren seinale.

Argazkia: Oskar Txoperena

txe izanen omen dira, gaingitu nahi dituztenentzako. Orain arte etorri direnek ongi dakiten bezala, ez da sari eta haiaiketakorik faltako. Ea aurten zenbat etortzen zaizkigun.

Alkate eta zinegotzi aldaketa

Bilera berezia izan zuen abuztuaren 11an igantziko Udalbatzak, zinegotzi berriaren kargu hartzea izan baitzen eta ondotik Alkate be-

rriaren hautaketa. Denok dakigun arrazoirengatik, bete beharra zegoen Herri Taldearen hutsunea Herriko Etxean, eta Felisa Goienetxe izanik Herri Taldeko zereendari hurrengo hau-

flash

Bestak gainean

Bertze ale bat aterako da oraindik bestak baino lehen, eta horretan, egitarauari buruzko xehetasun guztiak emanen dizkizuegu, baina, bestak zein egunean izanen diren jakitea denei komeni zaigu. Aurten, iari-laren 28an hasi eta urriaren 3an akautuko zaizkigu.

Txindokira bidaia

Erne egon mendizale zareten guztiak, Biltoki Elkarte Txindoki aldera joateko bidaia prestatzen ari baita irailaren 20rako. Informazio gehiago nahi duzuen guztiak, jo ezazue Biltokira edo juntako edozein par-taiderengana.

tagaia, berak hartu zuen kargu berria. Lehen ere lau urtez egona da Herriko-etxeko lanetan. Ondotik, Ramon Retegi aukeratu zuten Alkate lanetarako, Herri Taldeko borts botuekin.

BERAZKUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

MARTIKO
Gure baserrietako
produktuak
© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

BERA
© 948631076 • BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik
hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264

ARANTZA

Jende aunitz eta giro ederra aurtengo bestetan

Larunbateko kontzertua ekaitzaren ondorioz suspenditu zen

ELIXABET ETA GARBIÑE

Aurten giro ederrean igaro dira herriko bestak, nahiz eta eguraldiak ez duen aurreko urtean bezala lagundu. Lehen egunetik jende aunitz hurbildu zen herrira eta asteburua kanpinean igarotzeko ere gazte ugari etorri zen.

Larunbateko ekaitzaren ondorioz, gazteek antolatutako kontzertua bertan behera utzi behar izan zen, alokatutako ekipoa euriarekin hondatu baitzen. Kontzertu hori datorren urtean egingen da eta saldu ziren errifan zozketa egiten denean jakinaraziko da zein den zerbaki irabazlea.

Azken egunean egin zen herri bazkaria. Gero, denak herrian barna ibili ondotik, arratsaldeko bertso saioa aditzeko aukera izan zen. Bertan,



Herriko dantzariak Amabirjin Egunean eta herri bazkari egunean eskaini zituzten beraien dantza saio ikusgarriak

Lizaso, Murua, Estitxu Aroza eta Iñigo Olaetxea aritu ziren.

'Egin'en aldeko mozioa onartu da

Egin irratia eta egunkaria ixtiarekin epaile espainiarrak adierazpen

eta iritzi askatasuna ixilaz nahi izan duela adierazi eta berriz irekitzea eskatu du Udalak, HBren mozioarekin bat eginez. Poliziaren eskuetan dauden hamaka euskaldunen egoeraz kezka adierazi zuen.

Pilotalekuko hegola ixteko gonbidapena zazpi enpresari luzatu ondoren, aurkeztu den proposamen bakarra Talleres Onena lantegiarena izan da. Iraila akabilan lana egina egonen dela espero da.

flash

Aparkalekuko lanak

egiteko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Udaletxeak arkitekto desberdinei proiektuak azaltzeko irailaren 10a arteko epea eman die.

Igantziako Bentako bidegurutzea

N-121-A errepidean Arantza eta Igantzi aldera hartzeko bidegurutzean dagoen arriskua azaldu dute herritarrek eta beharrezkoa ikusi dute errotonda bat egitea bertan, orain egin behar den maniobra ez egiteko. Hori dela eta, Udalak aho batez eskatu dio Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamenduari bidegurutze horri irtenbide bat ematea. Eraberean, Igantziako Udalarri erabaki honen berri emanen zaio, berak ere onar dezan.

Zure ingurua klase guztiko insektoz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua



948630155
BERA



PINTURAS DEL BIDASOA

Barne eta kanpoaldeak
Goteleak - Iztukadurak
Lakatuak - Papereztatzeak
Lucas Sansiñena 929-416768
Jose Luis Macayo 970-655785

Aurrekontuak
Loturik gabe

SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegera 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Elizatz

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat
prezio bereziak

Landetxe Enparantza 943.492698 OIARTZUN

Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPUNKETA

- Kamioi eta industri-furgonetan errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolqueteendako sareak
- Kamioiendako klase guztietako toldoak
- Piztina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)



Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23

SUNBILLA

Goitibera jautsiera izan zen bestetako ikuskizun nagusia

Mikel Ibarra eta Mikel Bertiz suertatu ziren irabazle

JAIONE ETA ALBA

Orain arte egiten ziren txapelketa edo lehiaketetaz gain, aurtengo herriko bestetan lehenengo aldiz goitibeherak izan genituen ikusgai. Hiru goitibera izan ziren Garaikobordatik Fonda ostaturaino jautsi zirenak eta Mikel Bertiz eta Mikel Ibarrak egindakoa izan zen guztietan azkarrena. Ikuskizun berri honekin gustora gelditu zen jendea, nahiz eta hasiera batean aunitzeri arriskutsu xamarra iruditu. Ea hurrengo urtean koadrila gehiago animatzen diren honetan parte hartzea.

Ikasturte berria

Aste honetan eskola izan da protagonista nagusia. Lau ume, Jon Gago, Juan Ramon Espelosin, Nagore Mada-



Garaiak agintzen duenez, eskolan hasiak dira herriko neska-mutikoak.

riaga eta Oihane Antuña dira lehenengo aldiz eskolaratu direnak.

Igerilekuak

Igerilekuak irailaren 15ean itxiko ditu ateak. Hiru hilabetez egon da irekia eta hurrengo ekain bitarte ez da aukerarik izanen igerian aritzeko.

Famili-langilea izateko lanpostu deialdia

Famili-langilea izateko bi lanpostu betetzeko deialdia luzatu du Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak. Lanpostuak finkoak eta egun osorako izanen dira. Langileek bete beharreko baldintzen artean, Malerrekako

Mankomunitateko herri batean bizitzea eta autoa gidatzeko karneta izatea daude. Eskariak, irailaren 21eko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitateko idazkaritzan, Donezteben.

flash

Oieregiko kontzejuaren aurrekontua

30.960.747 pezeta-koa izanen da aurtengo. Diru kopuru honetatik ia guztia (29.515.891 pezeta) inbertsioetan erabiliko da. Inbertsio hauek laguntzeko, 25.364.095 pezeta-ko dirulaguntza ailegatuko da Nafarroako Gobernutik.

Bidasoa eta Berroarango Mendi Batzordeak

83.822.231 pezeta-ko aurrekontua izanen du aurtengo. Kokorikoko Mendi Batzordeak, berriaz, 4.766.821 pezeta-ko aurrekontua izanen du.

Laburmetrai lehiaketa

Guztira 22 filme aurkeztu dira Bertizko Partzuergoak antolatutako lehiaketara, batzuk maila handikoak eta sari garrantzitsuak irabazitakoak, gainera.



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

DONEZTEBE

La Union Kasinoak urteko besta ospatuko du datorren astean

Errekazopen ondotik bazkaria izanen dute elkarteak

PATXI IRIARTE

Bertze urte batez, Casino-La Union elkarteak bazkideek urteko besta ospatuko dute igande honetan zortzi, irailaren 20an. Egitaraua ia urterokoa izanagatik, bazkideen gustukoa da.

Goizeko 10etan herriko txistulariak karrikaz karrika ibiliko dira eta gero, hildako bazkideen aldeko meza izanen da. Eguerdian, laxoa partida jokatu da, noski, herriko zortzi jokalaririk onenak ardean. Gero, ordubiak aldera, 'errekazopak' dastatzeko aukera izanen da. Beranduxeago, bazkideen bazkaria banatuko da. Menua ez da urdail finentzat eginga, baina zaila da hobe auzkeratzea: banabar gorriak edo marmitakoa -aurtengo berrikuntza- eta ondotik txuleta, tarta, kafea eta kopaz gain. Besta honetan parte hartzeko, Titi, Belarra eta El Cafe ostatuetan eman behar da izena irailaren 18a baino lehen.

Bertze urte batzuetan, Donezteben hain



garrantzitsua den besta hau Santa Leokadiakoarekin batera suertatu da, baina aurten, iaz bezala, ez da horrela izan.

Santa Leokadia

Izan ere, joan den igandean ospatu zen Santa Leokadia Eguna eta urtero bezala, Legasa, Gaztelu, Doneztebe eta inguruko herrietatik

hainbat bisitari hurbildu ziren Santa Leokadiaren ermitara, inguru eder horretan eguna pasatzera. Larunbatean zopak jatera hurbildu zirenek, beti bezala, probatutako onenak direla adierazi ziguten, 'Lokari'koek ongi merezitako eta irabazitako fama baitute.

Hamabigarren txapela herriko taldearentzat

Hamabigarren aldiz lortu du Doneztebeko taldeak Baztan-Errekako Laxoa txapelketa irabaztea. Horietatik erdiak argazkian ageri den laukoteak irabaziak dira eta azkeneko bost urtetan segidan irabazi dute. Aurtengoan Arraiozkoak ongi aritu dira, baina abuztuaren 2an Iruritan jokatu zuten finalean herritarrak gailendu ziren. Agerian utzi zuten sasoia ikusiz, galdera bakarria gelditzen da: Noiz arte?

Emakumeendako IV. Paleta Goma Txapelketa antolatu du Errekak

Laugarren urtez, emakumeendako eskualdeko paleta goma txapelketa antolatu du Erreka elkarteak.

Partidak irailaren 19an hasiko da, bikoteka eta Doneztebeko eskolako pilotalekuan. Joan den urteko txapel-

flash

Bear Zana ehiztari elkarteak

larunbat honetan plantazio lanak egiteko auzolana deitu du, goizeko 8etatik aitzinera, Kaxernan. Erran beharrik ez da hameketakoa dohai-rik izanen dela. Arratsaldeko 8etan berriz bilera egingen dute. Postuetako auzolanak, txartelak eta bertzelako gaiak landuko dituzte, usok bistatzeko hila bete eskas falta denean.

Javier Martinen argazkiak ikusgai Bertizen

Javier Martin doneztebarraren argazkiak ikusgai daude Bertizko Parkean urriaren 12a bitartean. Bardeei buruzko argazki haundiak zintzilikatu ditu, batez ere.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
948 450 491



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINENEA Etxea San Andres Karrika, 40 NARBARTE

Deskontuak akordeoiak erostera

943 - 61 50 55



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera 948630735
Irun 943622305



948 45 01 02

Elizagibela, 7 Behea • DONEZTEBE

Ingelesa ikasteko modurik erraz eta atsegina

Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bideoteka, etabar.

98-99 ikasturterako matrikula zabalik

MALERREKA

Orokietasaldias eta Doneztebe-Saldias errepideak moldatuko dira

131 milioi pezetako aurrekontua izanen dute zolaberritze lanek

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Herrilan saileko Zuzendari Nagusiak Orokietasaldias (NA-4114) eta Doneztebe-Saldias (NA-4040) errepideetako moldatze lanen proiektua eta lanen kontratazio espedientea onartu berri ditu. Lan hauen aurrekontua 131 milioi pezetakoa da.

Bortz metro terdiko zabalera errepide osoan

Orokietasaldias errepidean 14.180 metro moldatuko dira. Zola berritzeaz gain, errepide guziari bortz metro terdiko zabalera eman nahi zaio. Gaur egun, ia 7 kilometrotan lau me-



Guzira 18 kilometro baino gehiago moldatuko dira bi errepideetan

Artxiboa

tro terdiko zabalera berterik ez dagoela kontuan hartu behar da. Eraberean, 1.600 metroan kuneta egingen da.

17 kilometro dituen Doneztebe-Saldias errepidean, berriaz, lanak zenbait bide zatitan egingen dira -4.100 metro

guzira-. Zola berria botako da, bide bazterrak garbituko dira eta bidea marrekin seinalizatuko da.

48 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Oitzko Udalak

Inbertsioetan 24 milioi pezetatik goiti erabiliko dira

TTIPI-TTAPA

48.226.972 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten Oitzko Udalak, udal baztarrean onartutako aurrekontuaren arabera.

Gasturik handiena inbertsioetan egingen da, 24.388.063 pezeta. Langileen soldatak ordaintzeko 13 milioi terdi gastatuko dira eta ondasunak eta zerbitzuak erosteko ia 7 milioi erabiliko dira.

Diru-sarrerei dago-

kienez, Nafarroako Gobernuak 23.469.678 pezeta emanen du inbertsioen gastuan laguntzeko. Transferentzia arrunten bidez 10.225.942 pezeta eskuratuko dira; tasa ezberdinen bitartez 9 milioi pasatuak eta zergei esker 5 milioitik goiti.

Bestak eta Gazta lehiaketa

Aurtengoz akitu zaizkigu bestak eta azken sei urtetan bezala, Gazta Lehiaketa izan da



24 milioi pezetako inbertsioak egingen ditu Oitzko Udalak

Artxiboa

ekitaldi interesgarrietako bat. Herrikoen arteko laxoa partida edo

txerri urinduen harripatzea ere, ekitaldi bixiak suertatu ziren.

flash

Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketa

Beintza-Labaiengo Jon Telletxea aizkolaria suertatu da irabazle Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketan. Zortzi aizkolarik parte hartu zuten abuztuaren 30ean Arazurin burututako proban eta Telletxea aisa nagusitu zen. Kanaerdiko bi enbor eta 45 ontzako beste bi mozteko 9'51" behar izan zituen, bigarren sailkatuari bi minutu eta 10 segunduko alde atereaz. Datorren urtean 2. mailan aritzeko txartela eskuratu du Beintza-Labaiengo aizkolariak.

Iturengo

Bizkarreko-bordainguruan, herriarenak ziren 55 metro koa dro emanen ditu Udalak. Bertan, ehizturien txabola egiteko intentzioa du Bizkarreko-borda ehizturi elkarteak.

Ehiza-barrutia

Donamaria, Urrotz, Oitz eta Beintza-Labaiengo herriek osatzen zuten NA-10434 ehiza-barrutian sartuko da hementik aurrera Saldias ere.

Elgorriagako Herriko Etxearen teilatua

moldatzeko 2.148.141 pezetako aurrekontua izanen da. Lana egiteko proposamenak aurkeztu dira dagoeneko eta egunotan jakinen da adjudikatzailea nor den. Gero, hilabeteke epea izanen dute lana akitzeko.

*Buruilaren 20an
Pilotaren Eguna
Senperen*

*Oxikonekoak
antolatua
ttipi-ttapa-ren alde*

GALLASTEGI
*bandiaren
omenez*

SENPEREN

Migel GALLASTEGI
haundiaren omenez
9 pilota partida
Bera / Senpere artean



17:00etan
Omenaldia Migel Gallastegiri

Partida haundia 17:30etan

GALLASTEGI saria

Luis Mari RETEGI - Inaxio ERRANDONEA



Thierry eta Olivier HAROÇARENE

Buruilaren
20an
PILOTAREN
EGUNA

GOIZEZ

10:00etan: Ezker paretan

9. urtekoak: Aitor KORTI - Inigo PRADA • Iker BILLET MARTI - Jonhitz BILLETAKORTA
10. urtekoak: Inigo BLAS - Oskari ZIBELTA • Jeanne LARREILLET - Nicolas D'AMORAS
11. urtekoak: Gorka HAROÇARENE - Mikel BAZONI • Iñaki BILLET - Bruno OLIVIER

11:00etan: Plaza libroan

12. urtekoak: Aitor BILLET - Mikel ESCUDERO • Sylvain URSUCOLI - Julien DESSOMART
13-14. urtekoak: Mikel ITTENDYSTE - Inaki ITTENDYSTE • Bruno BORDIET - Sébastien L'HERMINIER
15. urtekoak: Inaki ZIBELTA - Aitor BILLET • Iñaki BILLET - Bruno OLIVIER

ARRATSALDEZ

15:00etan: Plaza libroan

17. urtekoak: Gorka BAZONI - Gorka RETEGI • Olivier SABALOU - Mikel GUERMANIN
18. urtekoak: Aitor CEREZO - J.M. ALZUCARIN • Iñaki LADACHE - Tolo AGUIRRE

Arratscan: Mutxikoak, Dantzaldia Senpereko eta Berako musikariek

Antolatzaileak:
• Berako Gure Txokoa
• Oxtikenekoak
• SPUC, Senpereko Kirol Taldeak

TTIPI-TTAPAren alde

Sartzea: 50 libera • Haurrek: dohain

Antolatzaileak:

- Berako Gure Txokoa
- Oxtikenekoak
- SPUC (Senpereko Kirol Taldeak)

Bazkaria pilotariek, izena eman dutenentzat:
00 34 948 63 11 88 (ttipi-ttapa)
05 59 54 11 69 (Syndicat d'initiative Senpere)

Laguntzaileak:

- Kutxa
- Pampa
- Gure Irratia
- Euskal Kultur Erakundea
- Sanoki Gau Eskola
- Zaldubi Ikastola
- Pierre Guéraçague
- Crédit Agricole

Jean Paul MENDIHARAT:

«Duela 20 urte hasi nintzen fabrikazioa egiten baina betidanik maitatu izan dut pilota»

Nola hasi zinen pilota-fabrikazioa egiten?

1988an Mendiague pilota egilearen segida hartu nuen. Berak erakatsi zidan pilotak egiten.

Deskribatzen ahal diguzu fabrikazioaren prozesua?


Pilota gehienentzat dena ezpelez eginiko bola batekin hasten da. Bola hori kautxuz inguratzen da; bi kautxu mota erabil ditzakegu: esku huska, pala, joko garbi, paletako pilotak egiteko kautxu bulkanizatua erabiltzen da. Aldiz, zesta punta, xare eta palako pilotak egiteko, kautxu natural likido bat erabiltzen da, zinta bilakatzen dena. Gero lenaz inguratu behar da. Lena hori jokoen arabera tinkatzen da. Adibidez esku huskarentzat ez bezala, xisterarentzat asko tinkatu behar da. Lenaren bolumena eta pisu ona lortzean kotoi pixka bat ematen da, lena ez hauntutzeko. Kotoina lenari josten da eta azken hori larruz estaltzen.

Erakusketak eta salmentak egiten al dituzu?

Urtero erakusketa bategi-ten dut Hazparnen, hor iragaiten baita Euskal Herriko ligako finalaren astea. Aurten Herri Urratsen ere egin dut esposizio bat. Salmentari dagokionez, kirol taldeei, konpetizioetako antolatzaileei saltzen diet.

Bakoitzaren gustuaren arabera egiten al dituzu pilotak?

Konpetizio ofizialetan erabiltzen diren pilotak egiteko norma batzu errespetatu behar dira. Aldiz, nor-



Mendiagarat pilota egilea bere lantegian

baitek pilota berezi bat egitea nahi badu, egingen diot, baina ez du konpetizio ofizialetako ezaugarriarik izanen.

Ez al diezu profesionali saltzen?

Profesionalak jokalaria independenteak dira. Hauek zuzenean erosten dute beraien pilota.

Nola ikusten duzu geroa lanbide honetan?

Logroño-ko gizon batek instrumentuekin erabiltzeko pilotak plastikazko pilotetaz ordezkatu nahi ditu. Entseiuak eginak dira pilota tradizionalak ordezkatzeko. Hori lortzen bada, bistan da lanbide honek bere inportantzia galduko duela, baina nik ez dut hortan si-

nisten.

Baduzu mezuren bat gazteentzat?

Nere izenean lan egin baino lehen soldataduna nintzen. Ikusiz garai honetan zaila dela lana atxematea, animatzen ditut gazteak haien kontura lan egiten entseiatzera. Hala lan egitea neretzat plazer bat da eta pentsatzen dut ez dela hortaz izitu behar.

Milesker!

«Urtean 8.000 pilota egiten ditut eta 2.000 konpontzen»



Aintzane eta Maiana

Gan den urtean, Gantxikiko pilota xapelketan aritu ziren pilotariak



SENPERE ETA SENPEREKO PILOTARIAK

Senpere eta pilota hain dira lotuak non ez den batto aipatzen ahal bertzeaz orroitu gabe. Xistera Senperen asmatua izan dela denek dakite. 1857an Gantxiki Harotxa mutil gazteak pilotari abiadura gehiago eman nahi baitzion, gaitanezko ezargei batzuk xirikordatz saski bat egin zuen eta hura eskuan lotu...

pilota tresna berri bat sortu zen Senperen, eta zer arrakasta! 1863an pilota plaza berri bateraikia izan zen eta geroztik bere 100 metroko luzetasunak orroitarazten gaitu zonbatetaraino zabaldu den pilota gure herrian, izan dadin esku uska plaza laxoan, trinketean, eta ezker paretan, edo xisterran, pala antxan...

Gure pilota plazan preseski, hiru pilotariren ize-nak agertzen dira: SANTIAGO, THEOPHILE eta XABATENE. Batzu orroitzen dira oraino buraso batek edo aitatxi batek haien balentriak kondaturik. Duela mende bat 17 partida jokatu zituzten hegoaldeko pilotari talde hoberenaren kontra eta 16 irabazi. Geroxago

agertu zen Frantzua IRA-TZOQUI, Santiagoren suhia. Jestua ez bazuen hain xotila ere, partida osoan izpiritua argi atxikitzen zuen eta bere kontrakoak desesperatzen eta, azkenean, ihatzen zituen. Benat SEINek aldiz ikusleak sutzen zituen bere segurtasuna, bere zalutasuna, eta jokuaen aurrikuspenari esker. Garai hartan

PATXI LASKARAI **ARGAZKILARIA**

Zure argazkiak... Herri baten itxurak... Bizitzaren irudiak...

beraz Senpereko pilota jadanik maila haundikoa zen eta Euskal Pilota Federazioa sortu zelarik Senpertarrek laster beren burua agertarazi zuten.

Batzuek oraino gogoan dute 1936ko Atarratzeko partida hura, Mattin BORTHAIRek eta Pierre BEHASTEGUIk irabazi baitzuten Donapaleuren kontra. Mattin Borthaire bera, berriz, Frantziako xapeldun izan zen 1943an, eta bere hiru anaiak ere (Joset, Mixel eta Leon) ederki ari ziren plaza laxoan, Josetek Mattin ordezkatzan zuen ere noiztenka. Eta zombait urtez ilunpean egon eta, talde gazte batek Senpereko pilota argiratarri zuen berriz 1976an Donibandarrak garaituz Kanbon.

Trinketeen aldiz, Senpertarrak luzaz aparte egon ziren ez baitzuten toki egoki bat herrian berean xapelketa prestatzeko (hala ere Mattin BORTHAIRek irabazi zuen 1944an, Pierre ETCHEGARAYekin). Baina 1945an, Amotzeko trinketa eraiki zuten eta jostatoki berria laster menperatua izan zen.

1950. hamarkadan, pilota HEMAK-HOR elkartearen eskupean sartu zen eta pilotari gazte batzu, hala nola Mattin IRAZOQUI eta Xan BORDA, xapelketako titulu frango irabazten hasten dira eta jendeari haien abilezia eta haien jokoaren zientzia biziki gustatzen zitzaizkien. Berezko egin ziren biak, eta hasi bezain ongi segitu zuten.



Eneko Bessonart eta Sébastien Laurencena, azken xapeldunak

Ondoko urteetan bertze gazte bat hasi zen bere buruaren erakusten. Bere partidak denek gogoan ditugu, xapelketa andana bat badi-tuelako irabaziak: Mattin GARAT. Nork izan ote du, munduan eta edozein kirol-letan, hainbertze ohore eta titulu (6 aldiz Frantziako xapeldun, 8 aldiz finalean eta 4 aldiz Munduko xapeldun) eta nork iraun du 21 urtez maila gorenean?

1969an, «Saint-Pée Union Club» sortu zen eta pilota hartan sartzen. Eta bertze gazte zombaiten zuten Senpereko pilotari ohore egin, Mattin Garatekin bistan dena. Benat HARIS-GAIN eta Pascal HARO-CARENE «cadet» sailean hasi ziren garaipenak lortzen,

jostaleku desberdinak menperatuz (plaza laxoan, trinketeen, bai eta ezker paretan). Haiekin batera Daniel BORDA eta Tote BEREAK beren dohainen baliatzen eta hobetzen hasi ziren. Biak berezko eginen dira.

1989an Gantxiki polikiroldegia eraikia izan zen xistera asmatu zuen Donamartia etxaldeko mutilaren ohoretan. Trinketa moderno batekin Senpereko pilotako mundiala errezibitu zuen gure herria berriz ere pilotaren toki garrantzitsu bat zela frogatuz.

Aurten azken xapeldunak Sébastien LAURENCENA eta Eneko BESSONART gaztetxoak izan ditugu, ahantzi gabe Olivier SABBALOU eta Mikel GUE-

RENDIAIN «cadet» sailean. Ondoko urteetan pilotari haundiak izanen ditugula berriz ere Senperen ez da dudarik.

Segi hola eta agian luzaz!



Eneko Jorajuria



EYSKAL PILOTA LANTEGIA


TXAPELKETA ETA JOLAS

64310 SENPERE
Tel. + Fax: 05 59 54 12 04
e-mail: jpm.pumpa@wanadoo.fr

Migel GALLASTEGI:

«Iparraldean udan jokatzzen zen, neguan berriz Iparraldekoak etortzen ziren Gipuzkoara»

Irailaren 20an Pilotaren Egunaren kari, Senperen omenaldia eginen zaio Migel GALLASTEGI ARIZNABARRETA Eibarko pilotari haundiari. Orain Donostian bizi da eta harekin mintzatu gara bere bizia hobekiago ezagutzeko asmoarekin. Zurriola hondartzara eta Kursal ondoan bizi da orain 1918an Gipuzkoako Eibarren sortu zen pilotaria.



Migel Gallastegik Donostiako bere etxeko ateak zabaldu dizkigu, Senperen eskainiko zaion omenaldia kari.

Migel Gallastegi Eibarko baserri batetako semea da eta gazterik hasi zen burasok laguntzen etxeko lanak egiten. 12-13 urte zituelarik herriko plazan hasi zen pilotan jokatzzen. Gero, Eibarko 'Club Deportivo' taldean hasi zelarik GALLASTEGI izena ezagun bilakatzzen hasi zen.

16 urte zituenean, jadanik eibartarrek gustukoa zuten jokatzeko zeukan estiloa. 18 urterekin taldeko txapeldun egin zen, orduan jendea hasi zitzaion erraten debutatu behar zuela. Gallastegik ere debutatzea nahi zuen, diru piska bat irabazteko, baina hasi bezain las-

ter gerla etorri zen. Hainbat tokitan ibiltzen zenean (Gernikan, Mungian...) pilota utzi behar izan zuen Eibarren gelditzeko. Gernikako bonbardaketa orduan gertatu zen, eta Gallastegi frenterat deitu zuten. Gertakariak gogoan dauzka oraindik pilotariak, «*pelotan jokatu barik hiru urtez frentean egon*» baitzen, Gasteizen. Arabako hiriburuan, «*pelota afizio haundia zegoen eta saioak egueztenean (asteazkenean) egiten ziren*». Gallastegi orduan hasi zen «*pilota partida mordo*» jokatzzen Euskal Herria osoan, baita kanpoan ere.

Migel Gallastegik ongi gogoratzen ditu jokatu dituen partida gehientsuenak. Honela, Gasteizen 22-11 irabazi zuen Lazkanoren kontra Udaletxeak antolatu zuen partida batean. Gero, 1942an, 38 urteko Atano III.a, orduko txapelduna, garaitu zuen Gallastegik, 22-16. Eibartarraren fama asko hedatu zen garai hartan eta «*nere izena asko igo zen*». Kanpoan ere asko ibiltzen zen Gallastegi, hala nola Salamanka, Madril ala Bartzelonan. Ipar Euskal Herriko pilotarien artean ere adiskide frango zuela aitortzen du Donostian bizi den eibartarrak.


Orduan asko bidaiazten zuten jokalariek eta Ipar Euskal Herriko pilotarien modua ikasi zuen Gallastegik: «*Ipar Euskal Herrian udako bestetan asko jokatzzen zen Miarritzen, Senperen, Kanbon ala Baionan, neguan Iparraldekoak Gipuzkoan ibiltzen zirelarik. Kantxan beti haserre ginen, baina kanpoan lagun oso onak. Denboran, jende asko hurbiltzen zen pilota plazetarakarrok hartuz taxi moduan Baiona, Donibane Lohizune eta Miarritzen bezala*».

«Ipar Euskal Herrian oso ondo hartzen gintuzten, ia artista moduan»

Eibarko semea askotan ibiltzen zen Ipar Euskal Herrian, baita Landesetan (Mont de Marsan, Peiherorade...) ere. Leku bakotxean bortzpasei partida jokatzzen zituen urtero. «*Ipar Euskal Herrian beti oso ondo hartzen gintuzten, ia ia artista moduan. Oso ondo pasatzzen genuen elgarrekin, txanpaina edanez eta ondo afalduz*».

Migel Gallastegi Ariznabarretak oroitzapen on asko dauzka. Kondatu digunez, «*Errioxan ere frontoi oso onak daude eta ikaragarri giroa sortu ohi zen eta publikoak txapela botatzzen zuen batzuetan*».

Ezkerka partidarik onena Zurdo de Mondragonen kontra jokatu zuela aitortu digu. Jendea zoratzzen bazen ere, «*frakasoak*» ere bizi izan zituen Gasteizen, bereziki Feliperen aurka. Partida haundiak ere egin zituen, Logroñon bezala. Madrilan, Pilotaren Eguna zelarik, Atano III-Gallastegik



Gallastegi, Laduche, Aguerre eta Atano III, duela 50 urte

Achafla-Baitakoek utzia

irabazi zuten Onaindia-Kortabitarteren aurka, 22-18, nahiz eta bi pilotari horiek beren garai onenean ziren. «Partida ondotik Madrilgo kaleak hetsi zituzten, jendea gainezka zegoelako».

Migel Gallastegik go-goan duenez, Irungo muga pasatzeko ez du sekulan arazorik izan. Garai horietan ez zen gauza errexa bainan egunak eskatuz gero, lasai asko ibilki zen Eibarkoa. Gainerat mugan ziren goardek laguntzen zuten Gallastegi, hunek muga pasatu nahi baitzuen kirola egiteko.

Ipar Euskal Herrian, Gallastegi-Laduchek irabazi zuten partida bat Aranbillet-Aguerreren aurka, 30-28, bero haundia egiten zuelarik. Beroarengatik, Laduche gaizki zen eta kantxa

Migel GALLASTEGI

- ❖ Eibar 1918
- ❖ 1937an profesional gisa hasi.
- ❖ Atano II.ari irabazi zionetik eskuz banakako txapel-dun izan zen 1948, 50 eta 52an.
- ❖ 1953ko finala ez zuen jokatu nahi izan.
- ❖ 1960an erretiratu egin zen.

utzi baitzuen, «*abade batek ordezkatu zuen, Laduchen lekua hartuz publikoak hala eskaturik*». Gallastegik aipatzen duenaren arabera, argi da lagunak ez zituela falta Ipar Euskal Herrian. Hauen artean, Kanboko Pons farmazeutikoa. Askotan elgarrekin bazkaltzen

zuten, berari esker pilota partida ainitz jokatzen baitzituen Lapurdi aldean. «*Lagun oso onak ginen eta bere familiak ere oso ondo hartzen ninduen*». Kanboko Pons laguna «*stripuz hil zenean, pena haundixa*» izan zuen Eibarko pilotariak. Honen erranetan, Donibane Lohizune, Miarritze eta leku gehienetan denek ezagutzen zuten kanboarra.

Lehenengo harremanen lekuko dira 'Simun' koltxoiak ala matalazak. Gallastegiren erranetan markabiziki ona zen eta Gipuzkoara gutxienez lau koltxoi eramane zituen. Ezpeletan ere oinetako ederrak eman zizkion zapatagile batek. Gallastegik dionaz, «*urte askotan eduki nituen, oso onak zirelako, denboran Hego*

Euskal Herrian ez zen holarikorik aurkitzen».

Donostian egin genuen solasaldia bururatzeko, gallastegik aipatu ditu txapel-dun garaiak: 1948, 1950 eta 1952, «*kanpeoi, hiru bider*» egon zen, bainan 1953ko abuztuaren 24an diru gehiago eskatu zuen finala jokatzeke. Antolatzaileak ez ziren ados izan eta Gallastegik haxe erran zien: «*ez baduzu pagatzen, ni ez noia jokatzerara*». Partida suspenditu egin zuten eta disgusto haundia bizi zutela garai hartan aitortu digu irrifartsu, 45 urte beranduago. Hilabete batzuk pasa ziren jokatze gabe. Antolatzaileek eta Gallastegik dirua galdu zuten, «*bainan hor bizi gara oraindik... aurrera!*».



Franch Dolosor

XISTERA:

Gaintxikik sortu, Lacarrak hobetu

Senperen beti ukan ditugu pilotari on eta trebeak, eta orai ere, artikulua hauek erakustera emaiten duten bezela, kirol hunek bere tokia gordetzen du. Baina, Senperen badu berezitasun eta ohore bat: 1857an, Olha Kontierieko Jean Dithurbide, Gaintxikik, xistera asmatu zuen.

Xisteraren sorrera

Gaintxiki Olha Kontierieko semea zen baina, denbora txarra zenetan, bertze lagun batzuekin Donamartira joaiteko usaia hartu zuen. Donamartian, bazen selha erraiten zioten barne 6,40 m luze eta 6,20 zabal zituena. Han aritzen ziren plekan.

Garai hartan, Donamartiko aita zenak, orain sare edo otarre deitzen diren xistera batzuek egiten zituen, ilar, gerezi, sagar eta holakoen biltzeko. Xistera hauek zizriz eginak ziren eta bi buruetan arraultze baten forma zuten.

Egun euritsu batez, haurrak plekan ari zirela, xistera hauetako bat selhan suertatu zen. Orduan, Gaintxikik eskuan hartu eta bizpahiru aldiz pilota jotzen hasi zen. Berehala ohartu zen eskularruaren itxurako xistera batzuek xiriz egiten ahal zirela. Jakina denez, larruzko es-

kularruak pisu eta karioegiak ziren eta, beraz, ideia berri hau denengustukoa izan zen. Larruzko eskularruak 20 libe-raz goiti pasatzen ziren eta xisterak ber-ritz arunt merke zi- ren.

1857an, Gaintxikik 13 urte ber-terik ez zituela, as- matu zuen joku be- rri hau. Urtebetez aritu zen xistera egi- ten eta 300 liberare- na egin omen zuen. 14 urte zituelarik, arotzkoaren ikaste- rat Heletarat joan zen. Ondotik, Gaintxiki zazpi urtez ma- rinan itsasontzi kon- pontzen aritu zen baina ez zuen frantsesez hitz bat bera ere ikasi.

Nork hartu zuen segida?

Gaintxiki urte ba- tez bakarrik aritu zen xistera egiten baina bere ideia ez zen galdu. Bertzeak bertze, guarda batek eta be- randuago Azkainen bizi zen Joseph Lacarrak hartu zuten segida. Emeki-emeki, berri- kuntzak ekarritz, gaur egun ezaguna den xistera mol-



Donamartiako Pierre, Antton eta bere alaba, etxearen aitzinean.

datu zen: errien sartzeko es- kularrua, urritzaren orde- z gaztain zura erabiliz, mal- gutasun eta iraupen gehia- go ukaiteko.

(Milesker Donamartiako familiari)



Joana Mendiburu

S.A.R.L. APHESTEGUY

GARBITASUNERAKO GUZIAK

“Alexaria”

64210 ARBONA

Tel.: 05 59 41 94 83 - Fax: 05 59 41 87 45

ELGORRIAGA

Onddo eta Zizei buruzko jardunaldiak asteotan

Literatur Saria ere antolatu da

LORENA GALARREGI

Nafarroako Onddo eta Perretxikoen Kofradiak zenbait ekitaldi antolatu ditu aste hauetan Elgorriagan.

Irailaren 18an, ortziralara, arratsaldeko 6etan, onddo eta zizei buruzko solasaldia emanen du Garcia Bona jaunak. 9etan kofradeen anaitasun afaria izanen da.

Biharamonean, goizeko 10etan onddo eta zizen ibilbidearen inaugurazioa egingen da. Gero, Lehenengo Ibilaldia egingen da 8 kilometroko bidean barna. Ehun lehenengo parte-hartzaileentzat sariak izanen dira. Arratsaldean ibilbide bera errepikatuko da, baina

Elgorriagako zaldien gainean. Gauetz dantzaldia izanen da Gaubela taldearekin.


Igandean, irailak 20, goizeko 10etan, trikitalari eta txistulariak ibiliko dira herrian barna. Goizeko 11,30etan, Juan Mariezkurrenaren omenez antolatutako Natura, Ingurugiro, Onddo eta Zizen I. Literatur Lehiaketaren sariak banatuko dira. Lanak aurkezteko epea irailaren 15ean akituko da. Lanek gehienez sei orrikoak izan behar dute, euskaraz edo gaztelaraz idatziak eta natura, ingurugiroa, onddoak edo zizak hartu beharko dituzte gaitzat.

1etan Nafarroako Kofradeen Senidetza

ospatuko da. Ondoren, bertsolariak eta Mikel Urtxegi akordeolariaren emanaldia izanen dira. Gero, hameketakoa. Arratsaldean, onddo eta zizen bidean, ibilaldia Elgorriagako zaldiekin.

Urriaren lehen aste-buruan ere zenbait ekitaldi izanen dira: Onddo eta Zizen Kazuelen I. Lehiaketa, Kofradiaren Eguna, Mikologi Lehiaketa, bonsaien erakusketa eta Napardi korallaren emanaldia, bertzeak bertze.

Herri ttikia izan arren mugimendu haundia izan da uda honetan Elgorriagan. Uztailen Kultur Etxean egon ziren apopilo udako lan taldeetan parte hartu du-



Naturaren inguruko ekitaldiak izanen dira asteotan

ten gazteak. Gero, leku berean, bertako landare eta zuhaitzei buruzko erakusketa burutu zen. Landare hauei buruzko argazkiak eta bere zatiak ezagutzeko pa-

nelak jarri ziren. Erausketa etxearen goiko solairuan egin zen. Arras tokiederra da edozein gisako erakusketak egiteko, erlojuenarekin ikusi zen bezala.

ARANO

Ur-sareak berrituko dira Onzorrotzen

Oiartzungo Iturberri enpresak hiru hilabeteko epea du lana egiteko

TTIPI-TTAPA

Oiartzungo Iturberri enpresak egingen ditu Onzorrotz auzoko urhartze eta eramate sareen berritze lanak, 10.858.752 pezetaren truke. Aranoko Udalak aurkeztutako proiektuan gehieneko aurrekontua

13.242.368 pezetakoa zenez, enpresa honek %18an jeitsi du prezio hori. Aurkeztutako lau proposamenen artean ekonomikoki onena izateaz gain, lan baldintza egokienak eskaintzen zituen. Orain hiru hilabeteko epea izanen dute lan hauek bukatzeko.



Uharte-Arakilgo Artzain Txakur Txapelketa

Pedro Ansak Beltza txakurrarekin parte hartu du aurten Uharte-Arakilgo Artzain Txakur txapelketaren 31. edizioan.

Argazkia: Diario de Noticias

Bestalde, aste honetan egingen da Beheko Auzoko saneamendu eta ur sareen eta zola-

berritze lanen adjudikazioa, lehiaketa bidez. Gehieneko aurrekontua 16.189.806 pezetakoa

da eta behin lanak eman ondotik, lau hilabeteko epea izanen da hauek bukatzeko.

GOIZUETA

Pilota plazaren teilaturako dirulaguntza ukatu du berriz ere Nafarroako Gobernuak

Bost milioi pezetatik gorako aurrekontua du konponketak

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak ukatu egin du aurten ere herriko pilota plazaren teilatua berritzeko Udalak eskatutako subentzioa.

Bost milioi pezetatik gorakoa da iaz eta aurten Herriko Etxeak Iruñean aurkeztu duen proiektua, eta bertan, es-talkiaz gain, iluminazio edo argitazpenaren eta aldagelen hobekuntzak aurrakusten dira. Egitasmo honekin batera, Umore Ona elkarteko pilota atalaren eta Nafarroako Pilota Federazioako presidenteen gutunak ere jaso zituen Nafarroako Gobernuak, non, frontoiak Goizuetan duen garrantzia eta, aldi berean, kirol hone-tan eman dituen eta



Eskolan izena eman duten 90 haurrek ez dute hotzik pasatu beharko eskolan aurtengo neguan

ematen ari den emaitza ikaragarriak azpimarratzen ziren. Hala ere, esan bezala, azken bi urte hauetan ez du Nafarroako Gobernuak hain-tzat hartu eskaera.

Obretako kontzejala

den Miguel Jose Lekunak esan zigunez, erabaki honen aurrean azalpenak eskatu dizkio Udalak Kirol Institutuari. Lekuonaren hitzetan, baremo edo irizpide argirik gabe banatzen di-

tu subentzioak honek, eta horren aurrean, nolabaiteko indefentsioan erortzen omen dira ezezkoa jasotzen dutenak.

Bere eginbeharrak askoz hobeto bete dituen Gobernu bereko

Hezkuntza eta Kultura Departamendua da, 3.700.000 pezetako subentzioa eman baitio Udalari herriko eskolatan egiten ari den berogailuen konponketaren bigarren faserako. Dirulaguntza hau, %65a da, 5.700.000 pezetakoa baita aurrekontu osoa.

90 neska-mutikok hasi dute ikasturtea

86 goizuetar eta 4 aranoar matrikulatu dira 1998-99 ikasturterako Andres Narbarte 'Xalto' Eskola Publikoan, iaz baino 13 gutxiago. Haur Hezkuntzak, 3, 4 eta 5 urtekoak, 25 ikasle izanzen ditu; Lehen Hezkuntzako hiru zikloek 50, eta azkenik, DBHko Lehen Zikloko bi kurtsoetan beste 15 ikasle elkartuko dira.

ARESO


Gure kirolari buruzko erakusketa zabalduko da

Irailaren 18tik 27ra

JUANA M^a SAIZAR

Azken alean herriko festen egitaraua argitaratu genuen. Haiek pasatu ziren dagoeneko eta betiko martxan sartu ga-

ra, kostata alajaina! Aspaldidanik ez dugu erakusketarik izan herrian. Orain, Plazaola Partzuergo Turistikoak ekarriko du 'Gure herria, gure kirola' era-



'Gure herria gure kirola' izeneko erakusketa irekiko da laister

kusketa. Tokia oraindik zehaztu gabe dago eta irailaren 18tik 27ra egongo da, astelehene-

tik larunbatera, 5etatik 8etara eta igandetan, 11etatik 2etara. Hiru sail izanzen ditu: Euskal

Herriko kirola, kirola eta Euskal Herriko giroa, kirola aitzinatik nola gaurkotu den.

Adierazpen askatasunaren eta Eginen alde agertu da Udala

Juncal Otxandorena arituko da drogomenpekotasunaren prebentzioan

JOSEBA AZPIROZ

Egin egunkaria eta Egin Irratia komunikabideen derrigorrezko itxiera dela eta, Leitzako Udaltzako, Herri Bata-sunaren zinegotzien aldeko botoekin eta Eusko Alkartasunako zinegotzien abstentzioarekin, atxilotutako egoeraz kezka azaldu eta beraien askatasuna eta eskubideak bermatuak izan daitezela exijitzea onartu zuen. Adierazpen eta iritzia askatasuna isilarazi, urratu dutelako, beraien gaitzespena adieraztea eta Gobernu espainiarrari elkarrizketaren bideari eusteko eskatzea ere erabaki zuten.

Horretaz gain, eta aho batez, erabaki zuten: atxilotutako eskubideak errespetatu daitezela eskatzea; komunikabideak zergatik itxi dituzten arrazoiak berehala argitzeko eskatzea; behin behineko erabaki hauek, Egineko langileentzat oso ondorio latzak eta konponezinak ekar ditzaketela adieraztea eta gainera, adierazpen askatasunarako eskubidea larriki kaltetuko dela, itxierak luzaro irauteko badu eta ekintza hauek ahalbidetu dituzten arrazoiak berehala zorroztasun juridiko handienaz argi-



Josetxo Billabona eta Xarpa irabazle Uharte Arakilen

Josetxo Billabona leitzarra eta Xarpa bere zakurra txapelkun suertatu dira Uharte Arakilgo 31. Artzain Txakur Txapelketan. Honetaz gain, Josetxok hobekien jantzitako artzainari emandako saria eraman zuen. Modu honetan, Billabonak eta Xarpak, Oñatiko Nazioarteko Lehiaketan eta larunbat honetan, irailak 12, Otxandion jokatu den Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko txartelak lortu dituzte.

Argazkia: Euskadi Informacion

tzea exijitzea, lehen aipatutako langileek eta askatasunak kalte konponezinak jasan ez ditzaten.

Bestalde, Udaltzako, eratu berri den Euskal Presoak Euskal Herrira Herri Ekimenak herritarren atxikimendua lortzeko ateratako manifestuarekin bat egitea ahobatez onartu zuen eta abuztuaren 10ean egin zen manifestazio isilean parte hartzeko deialdia ere luzatu zuen.

Droga menpekotasunaren prebentzioa

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitateak Drogomenpekotasunaren Prebentzioan aritzeko lanpostu baten deialdia luzatu zuen eta, frogak burutu ondoren, Juncal Otxandorena leitzarra kontratatzea erabaki zuten, berak atera baitzuen puntuaziork altuena.

Alboka taldea ostiralean

"Cultur 98" programazioaren barnean, ostiral honetan, irailak 11, arratsaldeko 8,30etan, Alboka taldearen emanaldia izanen da zinean. Abuztuaren 21ean Erramun Martikorena aritu zen eta hilaren 4an, berriz, Ganbara taldea.

❖ **Nortasun Agiria** berritzeko bulegoak hilaren 18an etorriko dira.

flash

❖ **Futbol zelairako lurrak** Loiategi inguruan herriarenak diren 4.050 metro koadro emanen zaizkio Miguel Iturrarteri. Honek, trukean, Mendigorria inguruan dituen 270 metro koadro emanen ditu. Herriko Etxeak futbol zelaia egiteko behar du lur eremu hau.

Bi leitzar Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketan

Abuztuaren 30ean, Arazurin jokatu den txapelketan Aitor Otermin eta Jose Ignazio Olano leitzarrek aritu ziren. Zortzi aizkolarien artean Otermin bigarrena izan zen eta Olano bosgarrena.

Egur lotea

Udalak Urdiñolan insignis eta alertze pinuez osatutako lote bat atera du subastan. Guztira 2.564 metro kubiko dira eta lizitazio prezioa 15,6 milioi pezetakoa da. Proposamenak urriaren 16ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu behar dira.

Zelai txapelkun

Abuztuaren 2an Euskal Herriko harrijasotze txapelketa harri txikiekin burutu zen Leitza. Jose Antonio Gisasola 'Zelai' nagusitu zen.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

ttipi-ttapa
internet

helbide
berriak

Internet: jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

BAZTAN

Iruritako errebote plazaren mendeurrena ospatu dute


Dantza, pelikula emanaldiak eta kirola izan dute abuztuko azken astean

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 23an bu-
rututako Dantzari Egu-
narekin hasi ziren Iru-
ritan Errebote Plazaren
Mendeurrena gogora-
tzeko ospakizunak.
Laugarren aldia bete
zuen Dantzari Egun ho-
netan, adin ezberdine-
tako hainbat dantzarik
parte hartu zuten.
Anaitasun bazkarian
110 lagun bildu ziren.

Abuztuaren 25ean
emakumeen arteko
frontenis partidua joka-
tu zen eta arratsean,
'Pilotari' laburmetraia
eta 'Ama Lur' filmea
eskaini ziren.

Abuztuko azken
igandean, mendeurre-
naren astea akautzeko,
aurtengo laxoa txapel-
ketaren finalaren erre-
bantxa jokatu zen.
Oraingoan arraioztarrak
nagusi, 9-8 irabazi bai-
zieten doneztebarrei.



Ehun urtetan hainbat partida ikusgarriren lekuko izan da Iruritako pilo-
ta plaza, aurtengo laxoa txapelketaren finala, adibidez.

Artxibokoa

Partiduaz gain, herri
bazkaria izan zen. Ber-
tan, Jose M^a Salanueva,
Nafarroako Pilota Fe-
derazioko Lehendaka-
ria; Josetxo Iraundegi,
Nazioarteko Pilota Fe-
derazioko Lehendaka-
riordea eta Mikel Iza-
girre, Pilotarien Batza-

rreko ordezkaria izan zi-
ren, bertzeak bertze.

Ehun urteotan Iruri-
tako plazan aritu diren
herrietako ordezkariak
oroigarria jaso zituzten
Aranabia elkarteak ki-
deen eta Maribel
Sanjose alkatesaren es-
kutik.

DAMASO ZABALZARI OMENALDIA

Bertzalde, Damaso
Zabalza Iruritako
Maiskonean sortutako
musika konpositoreari
eskainitako omenaldian,
kontzertu bikaina es-
kaini zuen Edurne
Ubani pianojoleak.

flash

Berroetako lanak Hirurteko Planean

Berroetako zolabe-
rritze eta zerbitzuen
lehen fasea ere sartu
da Planean. San
Martin karrikako eta
Karrika Nagusiko ur
eta saneamendu sa-
reak berritu ondotik
zola berritu egingen
da. Lanaren aurre-
kontua 7,69 milioi
pezetako da eta
Iruñetik ailegatuko
den inbertsioa, ber-
riz, 4,46 milioikoa

Bake-epailea

Jose Joaquin Apeze-
txea elizondarrak be-
teko du, orain arte be-
zala, Baztango bake
epaile kargua. Berak
segitzeko boronda-
tea azaltzeaz gain, ez
zen bertze inor aur-
keztu kargua bete-
tzeko.

Amaiuurko

Errekaxipi errekan
dagoen zubia mol-
datzeko 74.000 pe-
zeta materialetan
eman du Balleko
Etxeak. Lana auzo-
lanean egingen da.

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

OPS Ingenieros S.L.

- Topografi lanak: Lur neurketak, balorazioak.
- Nekazal proiektuak: Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 948267453-948267602



BAZTAN OPTIKA

ORDUTEGIA:

Astearte eta ortziral goizetan,
10etatik 1,30etara eta asteazken
arratsaldetan, 5etatik 7,30etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



IZASKUN MASAIA ZENTRUA

Kirol Masaia

- Besoa, ukalondoa, belauna, zurmiao

Bizi masaia

- Zerbikalak, lunbarrak

Erlajazio masaia

Ortzileria, irailak 11

6etan txupinazoa. **8,30etan** baztan-zopak FRANCISCOrekin. **10etan** mutil dantzak. **12etan** txoko goratzea. **12,30etan** dantzaldia FRANCISCOrekin.

Launbetea, irailak 12
Haurren Egune

10etan argi soinuak. **2etan** gazteen bazkarie. **5etan** antzerkie: Kiki, Koko, Moko eta Flaxek, 'Dantza eta dantza' espektakulua eskainiko dute (Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua-ren laguntzarekin). **6,30etan** txokolatada herriko plazan. **8etan** MUXUTRUK taldea. **10,30etan** mutil dantzak. **11tan** sokamuturra. **12etan** gaupasa MUXUTRUK taldearekin.

Igendia, irailak 13

10etan argi soinuak. **12etan** Meza Gurutze Sainduaren elizan. **1etan** aperitifa Ostatuan. **5etan** bapateko musa Ostatuan. **6etan** Gorritiren animalien ikuskizuna. **8etan** GORRAMENDI 10 taldea. **10,30etan** mutil dantzak. **11tan** sokamuturra. **12etan** dantzaldia: GORRAMENDI 10.

Astelehena, irailak 14
Gurutze Sainduaren Egune

10etan argi soinuak. **12etan** Meza Nagusia Gurutze Sainduaren elizan. **1etan** luntxa Ostatuan. **5etan** Plater tiraketa herrikoia. **8etan** GORRAMENDI 10 taldea. **10,30etan** mutil dantzak. **11tan** sokamuturra. **12etan** dantzaldia: GORRAMENDI 10.



33 urteko aldea dago bi argazki hauen artean. Goikoa 1960ko bestetan ateri zen eta beheitikoa 1993an. Halere, bietan umore ona nabari da.

Astiertia, irailak 15
Herriaren Egune

10etan argi soinuak. **12etan** IX. Kamaren jaustia

errekan barna. **2etan** herri bazkaria Karrikatxarren. **2,30etan** Zozketa. Bazkalondoan dantzaldia FRAN-

CISCOrekin. **12etan** Gaizua ni! Arratsaldero plazan bu-ruhaundiak egonen dira.

❖ **Oronozko**

plaza zaharra mol-datzeke 372.000 pe-zeta materialetan eman du Balleko Etxeak. Lana auzolanen eginen da.

❖ **Arizkungo**

Eskola zaharra

enkante bidez sal-tzeko hirugarren saioa eginen du Balleko Etxeak, oraingoan %10eko beherapenarekin (10.859.400 pezeta, hasierako prezioa). Proposamenak aurkezteko epea dato-rreren astelehenean, irailak 14, akautuko da.

❖ **Berroetako eliza**

Hainbat moldaketa egin ondotik abuztuaren 30ean inau-guratu zuten Berroetako eliza. Lanen kostua 8.565.000 pe-zetakoa izan da eta herriarrek 5.350.000 pezeta or-daindu dute. Gaine-rakoa zenbait era-kundek ordaindu du-te, baina milioi erdi gelditzen da orain-dik ordaintzeko.

❖ **Zigako elizan**

ere egin dituzte mol-daketa batzuk eta igande honetan, irai-lak 13, eginen dute inaugurazioa.

❖ **Azoka Elizondon**

Abuztuaren azken igandean azoka be-rexia izan zen Eli-zondon, Napar Bi-deak elkarteak anto-latuta.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Uztailaren 21etik aitzinera
MERKEALDIAK

Arropa eta teletan

Ezkontza bazkaritan ematen diren
oroitgarriak egiten ditugu



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

SENPERE

Pierre Legagnoa okinaren ogi bero beroa

Hainbat ogi eta pastiza mota aurki daiteke bere saltegian

AUXTIN ZAMORA

Huna bi urte etorri zaukula, Ezpeletatik, gure Senpereko karrika erdirat Pierre Legagnoa, ogi eta bizkotxa egilea. Artetik errateko, Itsasutarrak aire bat badauka aitaren partetik eta Arizkungo Pikabea-Arotzarena familiatik, bere amaren aldetik...

Zazpi urtez Ezpeleta, Bordele eta Parise gaindi

Dena den, bere aprendizgoak eginik, 7 urtez, Ezpeleta eta Bordele bai Parise gaindi, horra beraz gure artean kokatu zaukula... Gauak, labearen ondoren izerditan, eta egunak ogi eta bizkotxa saltzen, egiaz, ez du gure gizonek lanbide errexa hautatu! Baina badakigu denok pasio baten kontra ez duela sekulan arrazoinak irabazten.

Pierre Legagnoaren saltegian sartzean, ezker, bizkotxa mota fran-

go; eskuin, xokoteak, mila moldetan, denak dira, begiak zuritu arte, gutizia ematen dutenak... eta erdian, umilki pausatua ogi punta xorrotx batzuk. Hala, pasatzean, ez da nehor fidatzen ogi horretaz, bizkitartean, ogi horiek dute gordetzen Pierre Legagnoaren sekretu haundiena: ongi erreak, altxagarri edo leburagutirekin anpatuak, lehengo denboretako ogiaren eite dutenak, luzaz fresko egoten direnak, bero beroak kasik labetik oraintxe ateraiak, irin xuri fedekabatez edoieztatuak... Xo, ez denak erran! Ogi horiek bakarrik Pierre Legagnoaren okindegian aurki daitezke.

«Herriko bolanjeraren artean den izpiritua estimatzen dut»

Marie Hélène Harriet eta Jon Fadon gaztearen laguntzarekin, Pierrek dio senperarrekin harreman goxo-



Marie Hélène Harriet, Jon Fadon eta Pierre Legagnoa osatzen dute okindegi-gozotegiko lan taldea. Hainbat ogi, bizkotxa, xokolet eta pastiza mota aurki daiteke Pierrerean.

ak dituela eta, ofiziale gisa ere, herriko bolanjeraren artean den izpiritua estimatzen duela, behar duetan denek elkar laguntzen dutela-

kotz.

Erran zahar batek dio: «Ogi puska bat baino hobeagorik ez da deus munduan». Pierre Legagnoaren saltegitik

ateratzean, batzu doatzi ezker, Senpereko plaza behera, bertzeak eskuin, ez dakigu norat, baina denek «Bihar arte!» erraten dute!

BASCOMAT

ETXEGINTZAKO
MATERIAL GUZTIAK

KALITATE ETA ZERBITZU

ERAKUSTOKIA:
ZURGINTZA, ADERAILUAK

Lizardi Lan zelaia • 64310 SENPERE
TEL. 05 59 54 15 40 - FAX 05 59 54 51 20

Okindegia - Gozotegia

Txokolat eta gozokigintza
Izozkiak • Ogitartekoak
Euskal pastiza

Berezitasunak

Bataio, jaunartze eta
ezkontza
pastizak

Pierre
LEGAGNOA
